

2022

1. hiruhilekoa

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA OGASUN
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA
Dirección de Economía y Planificación

EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

LABURPENA	3
EKONOMIAREN INGURUNEA	5
EAE-KO EKONOMIA	9
Ekoizpena eta enplegua	9
Barne eta kanpo eskaria	14
Prezioak, soldatak eta kostuak	21
Arlo publikoa	25
Arlo finantzarioa	27
Aurreikuspenak	34

Irudien aurkibidea

Munduko ekonomia. BPGa (I)	5
Munduko ekonomia. BPGa (II)	7
Enpleguaren bilakaera	12
Etxebizitzaren hipoteken bilakaera	32
2022ko eta 2023ko aurreikuspenak (I)	40
2022ko eta 2023ko aurreikuspenak (II)	41

Taulen aurkibidea

Eskaintzaren aldagaiak	9
Jardueraren adierazleak	10
Eskariaren aldagaiak	14
Kontsumo eta inbertsioaren adierazleak	15
Esportazioen helmuga	17
Inportazioen jatorria	20
Kontsumoko prezioen indizearen banaketa	21
EAEko kontsumoko prezioen indizea	23
Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak	24

Lan kostuak	25
Tributu itunduen bilakaera (urtarrila-abendua).....	26
Adierazle monetario eta finantzarioak (I)	29
Adierazle monetario eta finantzarioak (II)	31
Kreditu eta gordailuak.....	33
Ekonomia aurreikuspenak.....	35
Espainiako ekonomiarako aurreikuspen ekonomikoak (2022ko martxoa).....	37
EAEko ekonomiarako aurreikuspenak hiruhilekoka (2022ko martxoa).....	39

LABURPENA

Errusiako armadak Ukraina inbaditu izanak munduko egoera ekonomikoa zeharo nahastu du, Europako ekonomietan bereziki, gatazkarekiko hurbiltasun geografikoa dela eta. Otsailaren amaieran Errusiako tropak Ukrainan sartu ziren arte, Europako eta EAEko ekonomiaren egoerak baikortasunerako gonbita egin zuen. EAEn kasuan, 2021ean BPGaren hazkunde tasa %5,6 izan zen, laugarren hiruhilekoari esker; izan ere, hiruhileko horretan urte arteko aldakuntza tasa %4,7 izan zen, hirugarren hiruhilekoko datua baino zortzi hamarren handiagoa baita, 2022aren hasieran jarraitzea aurreikusten zen bizkortzeko prozesu batean. BPGaren hazkunde nabarmen horri esker, EAEko ekonomiaren susperraldia 2019ko mailatik lau puntura kokatu zen. Europan, hala Europar Batasuna nola eurogunea %5,2 hazi ziren urteko batez bestekoan eta %4,8 eta %4,2, berriz, laugarren hiruhilekoan.

Aipatutako gatazka armatuaz gain, EAEko ekonomia gutxienez beste hiru faktore garrantzitsuk baldintzatzen dute: pandemiaren jarraipenak, ekoizpen kateetan pairatzen ari diren botila lepoek eta inflazioaren bilakaerak. Lehenengo faktoreak zerbitzuetan du eragina bereziki, pandemia kontrolatzeko onartu diren mugikortasuneko murrizketak jasaten baitituzte. Murrizketak arindu ziren ahala, haien balio erantsia bizkortu egin da. Horixe hautematen da laugarren hiruhilekoko datuan sektore osorako (%5,4), baina bereziki merkataritza, ostalaritza eta garraioa barne hartzen dituen taldean (%12,2).

Bigarren faktoreak industrian du eragina nagusiki. Zenbait produkturen eskasiak, batez ere erdieroaleenak, kalte egin zion Euskadiko manufaktura alorreko enpresa garrantzitsu batzuen jarduera ohikoari, hainbat egunez gelditu behar izan baitzuten. Horren ondorioz, manufakturen balio erantsia oraindik esanguratsua den %3,8 hazi zen, nahiz eta aurreko tasaren oso azpitik egon. 2022ko koiunturazko informazioak, gatazka armatuaren aurrekoa baita, atzerapenak murrizten ari zirela eta jarduera normalera pixkanaka itzultzen ari zela iradokitzen zuen, orain gerraren ondorio ekonomikoek berriro ere hondatuko dutena.

Inflazioa da aipatutako hirugarren faktorea eta azken aldian protagonismo handiena bereganatzen ari dena. Izan ere, Ukrainaren inbasioaren aurreko tentsio geopolitikoek produktu energetikoen (petrolio eta gasa) prezioak igo zituzten jada eta produktu multzo nagusietara igarotzen hasiak ziren, eskaintza urria eta eskari handia orekatzeko beharrezkoa zen aldi labur bat izango zela espero zen neurrian. Baina gatazka armatuak areagotu egin du prezioen goranzko joera hori, eta energiaren prezioak maila altuetan daude ikuspegi historiko batetik. Errusiak Europako petrolio eta gas hornitzaile gisa duen garrantziaren ondorioz, nazioarteko herrialde erasotzaileari ezarritako zigor ekonomikoek energia lehengaien etorrera murriztea ekarri du berekin.

Europak Errusiarekin dituen merkataritza harremanak eten egingo dira herrialde horri ezarri dizkioten zigorren ondorioz, EAEko esportazioek pandemia aurreko mailak berreskuratu eta gainditu zituzten garai batean. Hain zuzen ere, 2021ean atzerrira esportatutako ondasunen 25.665 milioi euroak inoiz erregistratu den zenbatekorik handiena dira, eta 2018ko 25.488 milioi euroak (serie historikoaren aurreko balio maximoa baitzen) baino zertxobait gorago daude. Inportazioek ere goranzko bilakaera erakutsi zuten, baina, oro har, kanpo saldoak ekarpen positiboa egin zion BPGaren hazkunderari, bai urteko batez bestekoan, bai, bereziki, laugarren hiruhilekoan.

Barne eskariak sendotasun nabarmena erakutsi zuen iazko urtearen azken zatian (%3,1), nahiz eta familien kontsumoa (%3,0) ez zen handitu pentsa zitekeen bezainbeste, pandemian zehar pilatutako aurrezkiaren gorakada handia zela eta. Administrazio publikoen gastua, pandemia hasi zenetik aparteko ahalegina egin ondoren, moteldu egin zen eta urte arteko %1,7ko igoera izan zuen, aurreko hiruhilekoan erregistratutakoaren erdia. Bestalde, kapital eraketa gordinak (%4,3) portaera dinamikoa erakutsi zuen ekipamendurako ondasunen atalean (%7,5), eta motelagoa (%2,2), ordea, gainerako inbertsioan.

EAEko ekonomiaren susperraldian, erabakigarria izan da enpleguaren bilakaera, BPGaren bilakaeratik oso hurbil egon baita. Hain zuzen ere, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, BPGak urteko batez bestekoan izan zuen hazkunde tasak (%5,6) enplegua %5,5 handitzea ekarri du berekin. Laugarren hiruhilekoari dagozkion zenbakiak, hurrenez hurren, %4,7 eta %4,6 izan dira. Tasa horietatik eratortzen den produktibitate irabazi txikia produktibitate gutxiko zerbitzu batzuek (hala nola ostalaritzak) enpleguaren gorakadan izan duten pisu handiaren ondorio zuzena da.


Eskura dagoen informazio berriena erabiliz, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2022-2023 aldirako aurreikuspenak eguneratu berri ditu. Aurreikuspenen arabera, BPGaren aurtengo hazkundera %4,5 izango da, eta datorren urtekoa, berriz, %4,1. Hazkunde horrekin batera, enplegu sorrera handia (%2,8 eta %1,8, hurrenez hurren) eskuratuko da. Aurreikuspen berri horiek egiteko, Ukrainako gerra Europako ekonomian izaten ari den eragina hartu da kontuan, EAEko ekonomiatik hurbilen dauden herrialdeetako hazkunde aurreikuspena beherantz zuzentzera eraman baitu. Beste aldetik, oraingo eszenatokian, prezioen bilakaera pasa den abenduko aurreikuspenetan baino altuagoa izatea planteatzen da. Zehazkiago adierazita, orain BPGaren deflatorea urteko batez bestekoan %4,2ra igotzea eta datorren urtean %2,3ra apaltzea espero da. Gainera, kontuan hartu da moneta politikaren normalizazio leuna, eta interes tasek goranzko joera izango dute bi urte horietan. Era berean, euroak dolarraren aldean balioa galduko duela espero da, gerraren ondorioak Europako kontinentean indar handiagoz nabaritutako diren heinean.

EKONOMIAREN INGURUNEA

2021eko laugarren hiruhilekoa Covid-19aren seigarren olatuaren hasierak baldintzatu zuen. Omikron aldaera esponentzialki hedatu zen eta bost kontinenteetara zabaldu zen berehala, nahiz eta txertaketaren martxa onak eta andui horren ezaugarri ez hain hilgarriek aurreko olatuetan erregistratutakoa baino hilkortasun txikiagoa ekarri. Hala eta guztiz ere, herrialdeek neurri murriztaile gogorrek hartu behar izan zituzten berriro ere, eta neurri horiek kontsumoko zerbitzuei eragin zieten, batez ere bidaia, turismo, ostalaritza eta entretenimendu zerbitzuei. Dena dela, eragile ekonomikoek erabakiak etengabe egokitu zirenez eta oraindik hedakorrek diren politika ekonomikoek hedapenak eman zuten pizgarriari esker, munduko jarduerak tonu hedakorriari eutsi ahal izan zion.

Izan ere, adierazle ekonomiko nagusiek hazkunde ekonomiko indartsua erakutsi zuten 2021aren amaieran, nahiz eta nazioarteko merkataritzaren hazkundera neurritsua izan zen. Inflazioak, bestalde, gora egiten jarraitu zuen, energiaren prezioen igoeraren eta inflazio presioen orokortzearen ondorioz sektore guztietan.

Munduko ekonomia. BPGa (I) Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: ELGE.

Hala ere, ikusitako bilakaerak heterogeneotasun nabarmena erakusten du eremu geografikoek arabera. Hobekuntza, funtsean, ekonomia aurreratuen artean gertatu zen, txertaketa prozesuetako aurrerapenaren ondorioz, eta, horri esker, nabarmen kontrolatu zuten kutsatzeen

kopurua eta, batez ere, pandemiaren osasun ondorioen larritasuna, eta, beraz, murrizketak lasaitu ziren. Garatzeko bidean dauden herrialdeetan, berriz, pandemiaren eragina oso handia izan zen azken hilabeteetan, eta, horren ondorioz, eusteko neurriak mantendu edo areagotu egin ziren. Hori izan zen Txinaren kasu zehatza, herrialde horretako txikizkako salmentek urtearen azken txanpan maila apalean jarraitu baitzuten, eta horrek agerian uzten du zein zaila den kontsumoa pandemia aurreko mailetara itzultzea Covid-19aren aurrean ezarri zuten estrategia zorrotzarekin. Horri etxebizitzaren higiezinaren sektorean izandako zurrunbiloak gehitu behar izan zitzaizkion. Izan ere, higiezinaren salmentek negatiboak izaten jarraitu zuten abenduan, eta etxebizitzaren prezioek behera egin zuten berriro. Horren guztiaren ondorioz, Txinako jardueraren ekonomikoa %4,0ra mugatu zen, tasa nabarmena oraindik, baina aldagai horrek erregistratutako maila historikoetatik urrun.

Latinoamerikako herrialdeei dagokienez, bertako ekonomia nagusiek, olatu berri hori nabaritzeaz gain, hornidura kateen mozketek eragin handia izan zuten beraietan. Hala, Mexikoko %1,1eko hazkunde batekin itxi zuen 2021a, aurreko hiruhilekoko erregistroa baino 3,5 puntu beherago, eta Brasilek, berriz, %1,6ra jaitsi zuen.

Herrialde aurreratuen artean bilakaera ezberdina izan zen. Zehatzago adierazita, iazko laugarren hiruhilekoan bertako ekonomiek %4,9 egin zuten gora, eta, horrela, pandemiaren aurreko jardueraren maila baino hazkunde handiagoa finkatu zen. Ez inflazio altuak -ELGAK %6,6ko inflazioarekin itxi zuen abendua, 30 urtean izan duen mailarik altuena-, ez produktio sektore batzuetan nabari zen ekipo, material eta eskulan eskasiak, eraikuntzan atzerapenak eragiten eta zerbitzuen sektorearen zati batzuetan susperraldia moteltzen jarraitu baitzuten, ez zuten eremuaren hazkundera oztopatu, aurreko erregistroa bi hamarren igo baitzen.


Lorpen hori, batez ere, AEBen eta Europar Batasunaren jardueraren onari egotzi zitzaion, nagusiki. Zehazkiago adierazita, AEBetako BPG %5,6 hazi zen 2021eko azken hiruhilekoan, familien gastuaren hazkunderari, enpresen inbertsioari, esportazioen gehikuntzari eta higiezinaren merkatuaren hedapenari esker, inbertsio publikoen beherakada partzialki konpentsatu baitzuten, bai administrazio federalarena, bai estatuko eta tokiko gobernuena. Horiek horrela izanda, hirugarren hiruhilekoan delta aldaerak eta tratatze globalak hornidura kateetan izan zuten eraginak geldialdia ekarri zuten arren, 2021eko azken hiruhilekoan ekonomiak portaera ona erakutsi zuen eta horrek Erreserba Federalak martxoan bere moneta politika gogortzeko erabakia justifikatu zuen.

Japoniak, bere aldetik, kontsumo pribatuak goranzko joera berreskuratzea lortu zuen. Hirugarren hiruhilekoan, irailera arte indarrean egon zen larrialdi egoerak gastu pribatuaren ahultasuna ekarri zuen berekin, baina 2021eko laugarren hiruhilekoan herrialde horretako kontsumo pribatua %1,6 hazi zen. Datu hori bereziki dinamikoa ez bada ere, funtsezkoa izan zen


inbertsioaren murrizketa eta gastu publiko txikiagoa konpentsatzeko; izan ere, esportazioek, Japoniako ekonomiaren beste zutabe nagusia baita, nabarmen murriztu zuten bilakaera, materialen eta osagaien urritasunaren ondorioz. Horren guztiaren ondorioz, Japoniako jarduera ekonomikoa %0,7 hazi zen. Datu positiboa prezioen bilakaerak erakutsi zuen. Merkataritza bazkide nagusiek ez bezala, prezioen igoera positiboa izan da Japoniako kasuan, 2021a %0,8ko KPIarekin ixtea ahalbidetu baitie, eta horrek %0,5eko urteko balantzea ekarri zuen, 2019ko erregistroa berdinduz.

Munduko ekonomia. BPGa (II) Urte arteko aldakuntza tasak

AEB



Europar Batasuna 27



Iturria: Eurostat eta BEA.

Europar Batasunean, ekonomiak suspertzen jarraitu zuen, eta lan merkatuak hobetzen jarraitu zuen, moneta eta zerga politiken babes zabalarri esker. Kontsumo pribatua izan zen hazkundearen eragile nagusia, eta, batez ere, geroraturako eskariak bultzatu zuen. Inbertsioa izan zen hazkundearen beste zutabea, herrialde gehienetan sendo agertu zelako. Alemania izan zen salbuespena. Inbertsioa laugarren hiruhilekoan uzkuritu zen bertan, esportazioak bere horretan mantendu ziren bitartean. Botila lepoekiko esposizio handiak -manufaktura-sektorearen ia %90ek aitortu zuen urrian hornidura arazoak zituela, eta eurogunean, berriz, batez beste, %50ek baino gehixeago- dinamismo txikiagoa azaltzen dute. Zehatzago, Alemania %1,8 hazi zen, hirugarren hiruhilekoan baino 1,1 puntu gutxiago; Italia (%6,2), Frantzia (%5,4) eta Espainia (%5,2), berriz, lehen baino gehiago hazi ziren.

2022ari begira, ziurgabetasunak gero eta handiagoak dira. Ez zen baztertzekoa 2022ko lehen hiruhilekoan jarduera ekonomikoa aldi baterako moteltzea, pandemiari aurre egiteko

urtarrilean eta otsailaren zati handi batean ezarri ziren murrizketen ondorioz. Halaber, energiaren prezio altuak familien erosteko ahalmena eta enpresen etekinak murrizten ari dira, eta horrek kontsumoa eta inbertsioa gutxituko ditu. Aldi berean, ekoizpen kateetan botila lepoek bere horretan jarraitzen dute. Horri guztiari gehitu behar zaio orain otsailaren 24an Errusiak Ukrainan egindako inbasioa, eragin ekonomiko oso esanguratsuak izango dituen, bereziki Europako ekonomian.

Orain arte argitaratu diren adierazle ekonomikoek, urtarrilari eta otsailari buruzkoak baitira, ez dute oraindik okertze hori jasotzen, baina erakunde eta gobernu nagusi guztiek uste dute egoera ekonomikoa txarrera egingo dela. Oro har, gatazka armatuaren azken eragina, neurri handi batean, denboran luzatzearen arabera izango dela uste da. Errusiako energiarekiko mendekotasun handia duenez, Europako ekonomia bereziki arriskuan kokatu da orain. Inbertitzaileak Errusiako petrolio gordinetik eta gasetik ihesi dabilta, eta merkatua petrolio eskasia handiagoa deskontatzen hasi da Europan eta AEBetan, eta horrek prezio altuagoak egongo direla esan nahi ditu.

Izan ere, Espainiari buruz argitaratu diren azken datuen arabera, gas naturalaren prezioa %65 garestitu da inbasioa gertatu zenetik, eta argindarraren prezioa, berriz, 544,98 eurora igo zen martxoaren 8an megawatt orduko, inoizko erregistrorik garestiena delarik. Gasolinaren eta dieselaren prezioa, berriz, litroko bi eurora hurbildu zen. Zoritxarrez, gerra honen ondorioak ez dira soilik energiaren sektorerara mugatzen. Espainiakoa ekonomia defizitarioa da zerealetan eta Ukrainari erosten dizkio arto inportazioen %30 inguru. Gariaren prezioa %50 baino gehiago igo da Vladimir Putinen erasoaldia hasi zenetik, eta beste zereal batzuenak ere bi zenbakiko gorakadak izan ditu astebete pasatxoan. Gauza bera gertatzen da ekilore olioarekin, Ukrainatik %60 baino gehiago inportatzen baitu, Merkataritzako Estatu Idazkaritzak argitaratutako 2021eko azken datuen arabera. Horrek eragina izango du ogiaren, kontserben edo snack-en prezioan, eta horrek inflazioa areagotuko du, duela hilabete batzuetatik hona jada nahiko altua den arren. Otsailean, %7,4ra igo zen, tasarik altuena 33 urtetan.

Arestian aipatutako guztiaz gain, aipatu behar da Errusiak eta Ukrainak elkarrekin hornitzen dutela munduko titanioaren %13, hegazkinak egiteko erabiltzen dena, eta paladioaren %30, automobilak, telefono mugikorrak eta hortz enpasteak ekoizteko erabiltzen dena, eta horrek areagotu egingo du lehengaien falta. Inbasioari erantzuteko, multinazional handiek Errusian jarduteari utzi diote. Errubloa %30 jaitsi da dolarraren eta euroaren aldean, zigorren ondorioz. Errusiako burtsa itxi egin zen, zigorrei erantzuteko bere baloreen hondoratzearen beldur, baina martxan jarraitzen duten gainerako parkeak egoera hautematen hasi dira eta pilatutako irabazien zati bat galdu dute. Koiuntura zaila da, eta horrek munduko ekonomian izango duen eragina, lehen adierazi den bezala, iraupenaren arabera izango da.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

EAEko ekonomiak, munduko ekonomiak bezala, ziurgabetasun handiko unea bizi du, Errusiak Ukraina inbaditu ondoren sortutako gatazka armatuak izan ditzakeen ondorioengatik. Gerra hasi arte, EAEko ekonomiaren bilakaera ona izan zen hazkundeari dagokionez. Hain zuzen ere, 2021eko laugarren hiruhilekoan, bertoko BPG %4,7 hazi zen urte arteko tasan, aurreko hiruhilekoan baino zortzi hamarren gehiago, 2022ko lehen hiruhilekoan jarraipena izango zuela aurreikusten zen bizkortzeko prozesu batean, baina une honetan hobekuntza hori ez dago bermatuta. Bultzada horri esker, ekonomiaren susperraldia pandemiaren aurreko egoerara itzultzeko lau puntura kokatua zen. Bilakaera ona orokorra zen inguruko herrialdeetan. Izan ere, urte arteko aldakuntza tasa %4,8 izan zen Europar Batasunean eta %4,6, berriz, euroaren eremuan.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021			
			I	II	III	IV
BPG erreala	-9,9	5,6	-2,9	18,6	3,9	4,7
Nekazaritza eta arrantza	-15,0	1,8	-7,1	7,8	4,6	2,6
Industria eta energia	-11,2	8,5	-1,1	30,2	5,5	4,3
- Manufakturen industria	-11,6	9,2	-0,7	33,1	5,9	3,8
Eraikuntza	-8,2	2,4	-2,4	11,5	1,3	0,5
Zerbitzuak	-9,0	5,0	-3,5	15,5	4,0	5,4
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-18,1	8,9	-5,5	26,1	6,1	12,2
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	1,6	2,5	1,6	3,1	2,6	2,6
- Gainontzeko zerbitzuak	-8,6	4,1	-5,0	17,3	3,5	3,1
Balio erantsi gordina	-9,5	5,6	-2,9	18,4	4,2	4,8
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-13,6	5,3	-3,0	20,4	1,9	3,7

Iturria: Eustat.

Eskaintzaren aldetik egindako analisiaren arabera, balio erantsi gordina %4,8 handitu zen laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino sei hamarren gehiago. Halaber,

ekoizpenaren gaineko zerga garbiak %3,7 igo ziren balio errealetan, eta urteko batez besteko igoera %5,3 izan zen, ekonomia osoaren %5,6tik hurbil.

Industriak joera hedakorrari eutsi dio azken hilabeteetan, nahiz eta lehengaien eta bitarteko produktuen etorreran izandako atzerapenek bere jardueran eragin puntuala izan duen, bereziki automobilgintzari lotutako jardueri kalte egin baitzieten. Black Friday egunaren eta Gabonetako kanpainaren aurreko egunetan hornidura jakin batzuk falta zirenez, 2021eko urtearen amaieran industriako balio erantsia moteldu egin zen, manufakturetan neurri handiagoan, nahiz eta lortutako igoera oraindik oso esanguratsua izan eta ekonomiaren batez bestekoa baino hamarren gutxi batzuk txikiagoa bakarrik izan.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021			
			I	II	III	IV
Industria						
Industria produkzioaren indizea	-13,3	10,3	-0,8	32,6	7,1	5,9
Negozio zifren indizea	-16,2	18,2	4,2	42,2	16,0	15,6
Industria giroaren indizea	-19,5	-10,2	-3,5	-10,1	-16,4	-10,7
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-3,2	-0,5	-3,4	-0,4	1,2	0,7
Eraikuntza						
Eraikuntzaren koiuntura indizea	-8,1	7,2	1,2	18,6	6,0	4,8
Etxebizitza berriak eraikit. Oniritziak	-6,5	28,3	72,6	48,9	36,6	9,9
Etxebizitzen salerosketak	-13,6	15,8	1,9	47,2	14,9	6,9
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,9	1,1	-1,0	3,3	1,0	1,1
Zerbitzuak						
Hegazkinen bidezko bidaiariak	-71,6	57,5	-83,2	2.440,3	118,5	278,5
Hoteletan igarotako gaualdiak	-61,5	73,4	-59,3	422,1	81,4	216,8
Negozio zifren indizea	-12,4	15,4	1,0	33,2	12,8	17,6
Zerbitzuen koiuntura indizea	-7,4	6,0	2,0	20,1	1,8	2,3
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,8	1,2	-1,5	2,2	2,0	2,3

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerio, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Koiunturako informaziorik berrienak, gerra hasi baino lehenagokoa baita, iradokitzen du 2022ko lehen hilabeteak dinamismo handiko bidetik zihoazela sektore horretan, horniduren normalizazioarekin eta eskariaren suspertzearekin. Hala erakusten du urtarrileko IPI indizeak,

eskuragarri dagoen azkenak, %7,0ko urte arteko hazkundera izan baitzuen, aurreko bi hilabeteetan jasotakoaren antzekoa eta irailean eta urrian izandako zuloaren oso gaintetik dagoena. Produktu talde guztiek intentsitate handia erakusten zuten urtarrilean, tarteko ondasunek izan ezik, horiek lehengaiari oso lotuta baitaude. Izan ere, %2,7 hazi ziren hilabete batzuetako atoniaren ondoren. Beste muturrean, energiaren ekoizpenak hazkunde oso handiak izan ditu zenbait hilabeteetan (%14,5 urtarrilean). Bestalde, ekipamendurako ondasunen ekoizpena %9,7 igo zen eta kontsumoko ondasunena, berriz, %8,8.

Industriaren baikortasuna otsailera ere hedatu zen, industria giroaren indizeak eskaintzen duen informazioaren arabera. Estatistika hori 13,2 puntuko balio positiboraino igo zen, 1998tik izandako balio altuenera, zerotik gorako daturik erregistratu ohi ez duen serie batean, eta eskuarki joera ezkorra erakusten duena. Otsailean, enpresek adierazi zuten eskaera zorroa ona zela, ekoizpenaren joera oso positiboa zela eta saldu gabeko produktuen stockak nahiko txikiak zirela. Orobat, enpleguari buruzko igurikimenak azken urteetako positiboak ziren. Zalantzarik gabe, iritziak oso ezberdinak izango dira martxoan.

Eraikuntza beste sektoreetatik aldentzen da eta bilakaera motelduko profila du, bere balio erantsia laugarren hiruhilekoan urte arteko %0,5 bakarrik haztea ekarri zuena. Sektore horretan kostuak nabarmen igo dira azken hilabeteetan. Hori horrela izanda, 2021eko laugarren hiruhilekoan, kostu horiek %5 igo ziren sektore osoan eta %7, berriz, obra zibilean. Alde batetik, eraikuntzan erabiltzen diren lehengaiak pixkanaka garestitu ziren urtearen bigarren erdian. Beste aldetik, eskulan faltari aurre egiteko eta sektorea erakargarriagoa egiteko, soldata igoera garrantzitsuak adostu ziren. Eraikuntzaren koiuntura indizeak iradokitzen du bai obra zibilak bai, bereziki, eraikinen arloak moteldu egin zutela beren gehikuntza erritmoa urteko bigarren hiruhilekotik aurrera. Urtarrilean jaso ziren lizitazioaren datuak sektorearen adierazle aurreratutzat hartzen baitira arrunki, aldakorak izan arren, eta sektorearen geldotasuna areagotzen dute.


Pandemiaren bilakaerak eta hura kontrolatzeko hartutako neurriek baldintzatzen dute zerbitzuen bilakaera. Zentzu horretan, kutsatze olatuei lotutako murrizketek zerbitzuen dinamismoa murriztu zuten, eta ondoren neurriak kendu izanak jarduera batzuk azkar suspertzea erraztu du. Hori bereziki egia da merkataritzaren, ostalaritzaren eta garraioaren taldean. Izan ere, laugarren hiruhilekoan bikoiztu egin zen talde horren balio erantsiaren igoera, ezohiko %12,2ra arte, mugikortasunaren murrizketa handiak pairatu zuen 2020ko aldi batekin alderatzen baita. Gainontzeko zerbitzu taldeek aurreko hiruhilekoko tonuari eutsi zioten. Hala, sektore publikoarekin lotura handiena duten jarduerak datua errepikatu zuten (%2,6) eta gainerako zerbitzuek (%3,1) lau hamarren jaitsi zuten aurreko balioa. Oro har, zerbitzuek hazkunde erritmoa bizkortu zuten, %5,4ra arte.

2022ko informazio koiunturala sektore turistikoko datu batzuetara mugatzen da, biztanleriaren txertaketan eta pandemiaren kontrolean aurreratu ahala espero zitekeen suspertzeko profila eskaintzen baitute. Alde batetik, hoteletan igarotako gaualdiak pixkanaka berreskuratzen ari dira, eta urtarrilean aurreko urteko emaitza eskasa bikoiztu egin zen. Hala eta guztiz ere, aurten egindako gaualdien kopurua (238.000) 2020ko urtarrilekoa (320.000), hots, pandemia iritsi aurrekoa, baino askoz txikiagoa da oraindik. Gauza bera esan daiteke EAEko aireportuetako bidaiarien mugimenduari dagokionez ere. Hain zuzen ere, hirukoiztu egin zen duela urtebeteko datua, baina 206.000 bidaiari horiek urrun daude duela bi urteko 378.000 kantitate hartatik. Hasiera batean, Ukrainako gerrak eragin txiki samarra izango du Euskadiko turismoan; izan ere, errusiarrek eguzki eta hondartza motako turismoa egin ohi dute, euskal autonomia erkidegoan eskaintzen denaz bestelakoa.


BPGaren bilakaera onak enpleguaren susperraldia sendotzeko balio izan zuen 2021eko laugarren hiruhilekoan eta 2022ko lehen hilabeteetan. Lanaldi osoko lanpostu baliokideei dagokienez, BPGarekiko neurri bateragarriena horixe baita, laugarren hiruhilekoko igoera %4,6 izan zen, aurreko aldiari jasotakoa baino hiru hamarren handiagoa. Tasa horri esker, pandemiaren ondorioz galdu ziren 57.500 enpleguetatik ia 43.000 berreskuratu dira jada. Bai lanpostuen galera bai egungo susperraldia zerbitzuen alorreko enpresetan fokatu ziren. Zehazki, sektore horrek 44.200 enplegu gutxiago izan zituen, eta dagoeneko 36.200 sortu ditu. Gainerakoetatik, industriak 4.500 inguru berreskuratu zituen, eta sektoreko 200.000 lanpostuen langa gainditu du berriro.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

BJAren kalkuluen arabera, landun gisa sailkatutako pertsonen kopurua %1,9 igo zen iazko laugarren hiruhilekoan. Tasa horren eta aurretik aipatutakoaren arteko aldea, besteak beste, azken hilabeteetan aldi baterako lan erregulazioetatik atera diren pertsonak (lan egin ez arren landun gisa agertzen baitira) eta lanaldiaren aldaketak azaltzen dute. Bestalde, nabarmendu behar da laugarren hiruhilekoan emakume landunen kopurua historiako bigarren handiena izan zela, 2019ko hirugarren hiruhilekoko zifrak soilik gainditzen duela. Urteko batez bestekoan, 2021an ordaindutako lana zuten emakume kopururik gorena lortu zen.

2022ko hilabeteetan, enpleguaren bilakaera oso positiboa izaten ari da, Gizarte Segurantzako afiliazioaren erregistroek erakusten dutenez. Izan ere, afiliazioaren hazkunde erritmoa %1,9 izan zen laugarren hiruhilekoan eta %2,5, berriz, urtarrilean eta otsailean. Igoera puntu erdi bat handiagoa da emakumeen artean, zerbitzuen sektoreko afiliazioen hazkunde handiak lagunduta (%2,9). Industriak (%1,4) eta eraikuntzak (%1,7), non nagusiki gizonek lan egiten baitute, joera ez da hain hedakorra erakutsi zuten.

Nabarmendu behar da sortzen ari den enplegu mota, neurri handi batean, batez bestekoa baino kalitate handiagokoa dela. Hain zuzen ere, 2022ko urtarrileko afiliazioak 2020ko urtarrilekoekin alderatuz gero, ikusten da 4.900 enplegu desagertu direla batez bestekoa baino soldata altuagoarekin (industriari eta finantza jardueretan), eta beste 6.800 soldata baxuarekin (merkataritzan, ostalaritzan eta beste zerbitzu batzuetan). Aitzitik, ia 9.500 afiliazio gehiago daude soldata altuko jardueretan (IKTak, jarduera zientifikoak, administrazio publikoa eta osasuna), 3.500 inguru batez bestekoaren antzeko soldatarekin (hezkuntza) eta 2.600 afiliazio baino ez batez besteko soldatatik beherako adarretan (zerbitzu osagarriak eta jarduera artistikoak). Guztira 4.000 afiliazio gehiago daude aurten 2020ko otsailean baino, pandemia hasi aurretik.

Enpleguaren goranzko bilakaeraren osagarri, langabeziak behera egin du, bai BJAren terminotan (2021aren amaieran aurreko urtean baino 15.000 pertsona gutxiago zeuden langabeziak), bai Lanbideren bulegoen erregistroan (otsailean 13.200 pertsona inguru gutxiago zeuden aurreko urtearekin alderatuta).

BPGaren (%4,7) eta lanpostuen (%4,6) konbinazioak adierazten du laugarren hiruhilekoko produktibitate irabazia oso apala izan zela (%0,1) eta hazkunde historikotik urrun kokatu zela (%0,9 batez beste 1995etik). Hori, funtsean, eraikuntzaren egoeraren ondorio izan zen (-%2,6), jarduera apal samarra izan baitzuen (%0,5), baina enplegua nabarmen handitu zuen (%3,1), etorkizunerako aurreikuspen onak zituelako. Bestalde, industriak (%2,0) bere ohiko erregistroekin bat eginez eutsi zion irabaziari, eta zerbitzuetan (-%0,1) enpleguaren hazkundera eta balio erantsiarena oso antzekoak izan ziren.

Barne eta kanpo eskaria

Eskariaren ikuspegiak emaitza handia erakusten du 2021eko laugarren hiruhilekoan kanpo eskariaren ekarpenari dagokionez. Zehatz-mehatz adierazita, ekarpen hori 1,6 puntukoa izan zen, 2012tik izandako handiena, baina orduan atzeraldi batean gertatu zen eta orain susperraldi fasean eskuratu da. Beraz, kanpoko saldoak alde batera utzi du ordura arteko neutraltasuna. Hori lortu da kanpora bidalitako ondasunen eta zerbitzuen esportazioen bilakaera onari esker (%11,1), inportazioak (%8,1) baino nabarmen gehiago hazi baitziren. Aldakuntza tasa horiek gorabehera, esportazioak zein inportazioak pandemia aurretik erakutsi zuten intentsitatea berreskuratzetik urrun daude oraindik.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021			
			I	II	III	IV
BPG erreala	-9,9	5,6	-2,9	18,6	3,9	4,7
Gastua azken kontsumoan	-8,9	4,8	-2,5	18,1	2,4	2,7
- Familien gastua kontsumoan	-12,4	5,3	-3,7	22,6	2,1	3,0
- Adminis. gastua kontsumoan	3,8	3,0	1,6	5,2	3,5	1,7
Kapital eraketa gordina	-11,7	6,3	-1,3	21,4	3,7	4,3
- Ekipamendu ondasunak	-12,9	12,8	1,9	41,3	7,6	7,5
- Gainontzeko inbertsioa	-11,0	2,6	-3,2	11,2	1,5	2,2
Barne eskaria	-9,6	5,1	-2,2	18,9	2,7	3,1
Esportazioak	-16,1	11,8	-2,4	30,1	12,5	11,1
Inportazioak	-15,4	10,8	-1,4	29,8	10,2	8,1

Iturria: Eustat.

Barne eskariak ere bizkortu egin zuen bere hazkunde erritmoa 2021eko azken hiruhilekoan eta %3,1eko tasa eskuratu zuen, aurreko hiruhilekoan lortutakoa baino lau hamarren handiagoa baita. Espero zen erreboterako tasa apal samarra den arren, kontuan izan behar da omikron aldaera agertu izanak jarduera batzuk normaltasun osoz garatzea eragotzi zuela, bereziki kontsumoari dagokionez.

Azken kontsumoko gastuak dinamismo mugatua erakutsi zuen eta urte arteko %2,7ko hazkundera izan zuen, aldi horretako ekonomiaren batez besteko hazkundera baino bi puntu txikiagoa. Agregatu hori osatzen duten bi osagaiek portaera kontrajarriak erakutsi zituzten. Alde

batetik, administrazio publikoen kontsumoa moteldu egin zen, %1,7an geratu arte, aurreko hiruhilekoaren erdia eta bigarren hiruhilekoaren erritmoaren herena. Pandemiaren kontrolean aurrera egin eta normaltasunera itzuli ahala, esku-hartze publikoaren gorakada txikiagoa da, baina nabarmena izaten jarraitzen du. Horrela, 2020an kontsumo publikoa %3,8 hazi zen, baina hurrengo urtean igoera oraindik esanguratsua izan zen, %3,0, baina urtean zehar beheranzko joera nabarmena erakutsi zuen. Bestalde, familien kontsumoak gorakada handiagoa lortu zuen laugarren hiruhilekoan (%3,0), baina mugatuta zegoen aldi horretan oraindik zeuden murrizketen ondorioz. Horrek pentsarazten du pandemiak behartutako aurrezkiak garrantzitsuak izaten jarraituko duela, eta egoera normaldu ahala azaleratzen joango dela.

Kapital eraketa gordinak bilakaera hedakorragoa erakutsi zuen laugarren hiruhilekoan eta urte arteko tasan %4,3 handitu zen, aurreko hiruhilekoan baino sei hamarren gehiago. Agregatu horretan ere alde esanguratsuak daude bi osagaien artean. Hain zuzen ere, ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioak %7,5 egin zuen gora, aurreko aldiaren antzera, eta gainerako inbertsioak, eraikuntzan egindakoak barne, hazkunde neurritsuagoa izan zuen (%2,2). Kostuen igoera da inbertsio mota hori geldiarazten duen arrazoietako bat, nahiz eta etxebizitzaren merkatua une ona bizitzen ari den.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021			
			I	II	III	IV
Kontsumoa						
Azalera eta kate handietako salmentak	2,2	0,3	1,5	3,7	-2,8	-1,0
Txikizkako merkataritza indizea	-4,9	3,6	-0,5	15,6	-2,1	3,3
Kontsumo ondasunen ekoizpena	-6,6	11,9	0,3	25,7	10,9	11,7
Kontsumo ondasunen inportazioa	-0,3	20,0	17,6	22,7	17,5	22,6
Turismoen matrikulazioa	-22,0	-19,7	-12,0	40,3	-41,8	-32,3
Inbertsioa						
Ekipo ondasunen ekoizpena	-12,5	12,7	-0,2	34,3	10,7	9,8
Ekipo ondasunen inportazioa	-16,4	21,1	7,7	43,1	17,3	20,1
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-22,5	7,0	20,6	75,5	-10,9	-28,4
Etxebizitza berriak eraikitze oniritziak	-6,5	28,3	72,6	48,9	36,6	9,9
Lizitazio ofiziala	-23,7	64,1	46,5	131,6	71,6	31,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

EAEko ekonomiak jarraitzen duen suspertzeko eredia Europakotik aldendu da BPGari egindako ekarpenen banaketan. Adierazi den bezala, laugarren hiruhilekoan kanpo saldoak 1,6 puntu ekarri zizkion hazkundeari Euskadin. Aitzitik, bai eurogunean bai Europar Batasunean ekarpena apur bat negatiboa izan zen (hiru eta lau hamarren, hurrenez hurren). Halaber, kontsumo pribatuak dinamismo handia erakusten du Europan, eta inbertsioa ekonomia osoa baino gutxiago hazten ari da.

Kanpo merkataritzan prezioen igoera handia nabaritzen ari da, esportazioen eta inportazioen deflatoreetan hauteman dena, %10aren inguruan kokatu baitira biak, hots, azken hogeita bost urteetan inoiz ikusi gabeko tasa batean. Beraz, ezinbestekoa da balio nominalak eta errealak bereiztea. Termino errealean, esportazioak %11,1 gehitu ziren eta inportazioak, berriz, %8,1, lehenago aipatu den BPGari egindako ekarpena eraginez. Esportazio errealak zein inportazio errealak pandemia aurreko mailetatik urrun daude oraindik. Hala ere, balio nominaletan, esportazioak %22,9 hazi ziren eta inportazioak %18,8. Balio absolutuak 13.615 milioi eurokoak eta 13.921 milioi eurokoak izan ziren, hurrenez hurren, eta horiek dira serie historikoaren baliorik handienak.

Ondasun eta zerbitzuen esportazio horietako asko estatuko gainerako lurraldeetara bideratu ziren, eta gainerakoak munduko gainontzeko lurraldeetara. Ondasunak (zerbitzurik gabe) atzerrira saltzeari buruzko informazioa ugaria da, eta laugarren hiruhilekoan 6.974 milioi euroren produktuak saldu zirela jakitea ahalbidetzen du, hau da, 2020ko aldi berean baino %22,2 gehiago. Horri esker, 2021ean esportatutako guztizkoa 25.665 milioi eurokoa izan zen, eta hori ere serie historikoko zifrarik handiena da, nahiz eta 2018ko eta 2019ko kopuruekiko aldea 300 milioi eurokoa baino txikiagoa izan bi kasuetan. Ikusteko dago Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerraren ondorioek aukera emango duten atzerriarekiko merkataritza, azkenean berriro aktibatu baita, aurtan ere hedatzen jarraituko ote duen.

Produktu energetikoen esportazioa ia bikoiztu egin zen erreferentziazko hiruhilekoan, baina produktu ez-energetikoak dira aipatutako datu onen protagonista nagusiak. Oro har, energiaz bestelako produktuen salmenta %19,5 areagotu zen eta 6.591 milioi euro fakturatu zituzten, beste errekor bat ezarriz. Aipatu behar da automobilgintzako eta beste arloetako enpresen ekoizpena apaldu zuten botila lepoak urteko azken hilabeteetan leundu egin zirela, eta horri esker garraio materialaren taldeak %15,1 igo zituela salmentak, aurreko hiruhilekoko jaitsiera txikiaren ondoren. Bestalde, metal arruntek eta horien manufakturek urte arteko %27,6ko gehikuntza izan zuten, eta horrek jarraipena ematen die aurreko aldiatako hazkunde handiei. Era berean, nabarmena da, neurri txikiagoan bada ere, makinek eta aparatuek lortutako %6,9ko hazkundea. Gainerako taldeek, EAEko egitura esportatzailean pisu txikiagoa baitute, urte arteko aldakuntza tasa positiboak lortu zituzten.

Aurreko hiruhilekoetan bezala, esportazioen hazkundea antzekoa izan zen herrialde garatuen blokearen (ELGE) eta gorabidean dauden herrialdeen blokearen (ELGETik at) artean. Lehenengo kasuan, aldakuntza tasa %22,4 igo zen eta bigarrean, berriz, %20,8. Hala ere, hautematen da salmentak pixka bat kontzentratu direla merkatu garatuetan, 2019ko laugarren hiruhilekoan esportazio guztien %81,6 biltzetik bi urte geroago 84,5 bereganatzera igaro baitira.

ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2020	2021	2021				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	-17,8	23,0	9,1	42,2	22,2	22,2	6.974.081
ELGE	-16,5	23,9	11,1	43,3	22,6	22,4	5.890.800
Eurogunea	-12,7	25,9	13,0	44,7	26,6	23,0	3.842.909
Alemania	-6,1	13,4	15,6	29,2	2,8	8,9	1.026.964
Frantzia	-17,5	27,4	9,7	46,6	29,9	27,8	1.126.881
Italia	-9,4	26,5	18,5	35,7	35,9	19,3	379.428
Erresuma Batua	-42,2	26,2	14,3	61,4	28,6	12,9	425.079
AEB	-23,8	16,8	-2,5	17,1	15,8	38,2	481.246
ELGETik kanpokoak	-24,0	18,2	-1,4	36,8	19,9	20,8	1.083.281

Iturria: Eustat.

EAEtik atzerrira bidalitako esportazioen erdia baino gehixeago euroaren eremuko herrialdeetara bideratzen dira, guztizkoaren %55,1 jaso baitzuten. Ehuneko hori pandemiaren aurreko 2019ko laugarren hiruhilekoko baino lau puntu handiagoa da, eta, beraz, salmenten nolabaiteko kontzentrazioa gertatu da gertuen dauden merkatuetan. Eremu ekonomiko horretara, batez ere, ibilgailu automobilak esportatzen dira, salmenta guztien ia laurdena biltzen dutenak. Hala eta guztiz ere, erdieroale faltak sektore horri kalte egiten jarraitu zuen, eta laugarren hiruhilekoko aldakuntza tasa positiboa izan bazen ere (%2,7), euroguneko batez besteko igoeratik urrun egon zen (%23,0). Aitzitik, erregai mineralen salmenta bikoiztu egin zen hiruhileko horretan.

Frantzia eta Alemania lehian ari dira EAEko produktuen atzerriko helmuga nagusi gisa, eta laugarren hiruhilekoan Frantziako herrialdea lehen postuan geratu zen berriro. Herrialde horretara bidalitako salmentak %27,8 gehitu ziren urte arteko tasan, batez ere galdaketako partidei esker, %40 baino gehiago handitu baitziren. Aitzitik, automobilen salmentak (-%6,4) eta makineria eta aparatu mekanikoenak (-%12,6) jaitsierak jaso zituzten hiruhileko horretan.

Azkenik, azpimarratu behar da erregaien salmentak bilakaera positiboa izan zuela eta %49,7 igo zela aurreko urtearen aldean.

Alemaniarako esportazioak, berriz ere, batez bestekoaren azpitik hazi ziren. Hala, urte arteko hazkunde tasa %8,9 izan zen, euroaren eremukoaren erdia baino gutxiago. Funtsezko arazoia salmentak ibilgailu automobilen atalean kontzentratzea da, guztizkoaren ia erdia biltzen baitu herrialde horretan eta %1,1 baino ez baitzen hazi, ibilgailuek behar dituzten txipak lortzeko sektoreak dituen zailtasunengatik. Herrialde horretara egindako salmentetan pisua izan zuten gainerako produktuetatik, burdinaren eta altzairuaren galdaketak bakarrik izan zuen hazkunde handia laugarren hiruhilekoan (%48,1), baina kautxuak (%10,6) eta galdaketako manufakturrek (%8,2) ere izan zituzten tasa esanguratsuak.

Euroguneko beste herrialde handiak, Italiak, %19,3 handitu zuen EAEko produktuen erosketa hiruhileko horretan. Herrialde horretara egindako salmentak lau produktu multzotan biltzen dira nagusiki: makina eta tresna elektriko eta mekanikoak, guztizkoaren laurdena biltzen dutenak, ibilgailu automobilak, burdina eta altzairuaren galdaketa, eta kautxua eta horien manufakturak. Guztiek aldakuntza tasa positiboak eskuratu zituzten, batez ere makineriak eta galdaketak, bi kasuetan %40tik gorako igoerak izan baitzituzten. Ibilgailuek %14,9 jaso zuten, nahiz eta txipen hornidurarekin arazoak izan.

Hain zuzen ere, erdieroaleen eskasia dago Erresuma Batura egindako esportazioen emaitza apalaren atzean, %12,9 hazi baitziren aldi horretan. Ibilgailu automobilerik merkatu horretan saldutako EAEko produktu guztien %20 baino gehiago biltzen dute, eta %10,0ko aldakuntza tasa izan zuten. Hala ere, partida horren moteltzea burdinaren eta altzairuaren galdaketak erakutsi zuen dinamismoarekin konpentsatu zen, herrialdean salmentak bikoiztu baitzituen. Egitura esportatzailearen beste zutabea, hots, makineria, hiruhileko horretako batez bestekoarekin bat etorritik handitu zen.

AEBak batez besteko balioetatik urrundu zen eta EAEko produktuen erosketa garrantzitsu bat egin zuen, urte arteko %38,2ko hazkundera lortuz. Euskadik merkatu horrekin duen harremana erregai mineralen salmentak baldintzatzen du, eta horiek herrialdera bidalitako guztizkoaren %22,5 biltzen dute. Laugarren hiruhilekoan, erregaien salmenta 108 milioi eurotik gorakoa izan zen, pandemia hasi zenetik izan den kopururik handiena eta urtebete lehenago saldutakoaren bikoitza baino gehiago. Era berean, galdaketako manufakturrek 2021eko balioak bikoiztu zituzten (%164,8), eta, aldi berean, makina eta tresna mekanikoek, produktu garrantzitsuen hirugarren multzoak, herrialdera egindako esportazioak %14,3 hobetu zituzten.

Garapen bidean dauden herrialdeetara 1.083 milioi euro balio zuten produktuak bidali ziren laugarren hiruhilekoan, 2021eko aldi berean baino %20,8 gehiago. Esportazio horien oinarria makina eta aparatu elektriko eta mekanikoak dira, guztizkoaren %30 baino gehixeago biltzen dutenak. Hala eta guztiz ere, aldakuntza tasa apur bat negatiboa eskuratu zuten hiruhileko horretan (-%1,1). Sektorearen zailtasunak handiak izan arren, ibilgailu automobilak izan ziren igoera garrantzitsu horren protagonistak, aurreko urtean esportatutako zenbatekoa bikoiztu zutelako.

Garatzen ari diren herrialdeetan lortutako emaitza, neurri handi batean, Txinarekin ezarritako merkataritza harremanaren ondorio da, harreman hori eraldaketa une bat bizitzen ari baita. Hori horrela, herrialde horretara zuzendutako esportazioek bi hiruhilekotan hazkunde handiak izan ondoren, laugarren hiruhilekoan urte arteko tasak handia izaten jarraitu zuen (%33,5) eta salmentak 165 milioi eurora igo ziren. Kopuru horren ia erdia (78 milioi) ibilgailu automobilen atalean sartzan diren produktuei dagokie. Partida hori bi urte lehenago ez zen 4 milioi eurokoa baino handiagoa. Beste produktu batzuek, hala nola makineriak, salmentetan duten pisuari eusten diote.

Txinak ez bezala, Errusiara bidalitako esportazioek, gatazka armatuaren aurretik ere, ahulezia handia erakusten zuten. Zehazki, laugarren hiruhilekoan %12,6 murriztu ziren eta bi hiruhilekotan beherakada esanguratsuak izan ziren. Guztira, 57 milioi euroko produktuak bideratu ziren herrialde horretara, makinerian, ibilgailu automobiletan eta kautxuan kontzentratzen direnak. Saldutako bost eurotik lau talde horietako produktuei dagozkie. Bereziki, ibilgailu automobilerik portaera oso negatiboa izan zuten eta hiruhilekoko salmentak aurreko urtekoen ia erdiak izan ziren (-%40,9). Pentsatzekoa da herrialde honi ezarritako zigorrak merkatu horretako merkataritza erabat murriztuko dutela denbora batez.

Brasil da kontrako kasua, eta indarra hartzen ari da helmuga gisa. Laugarren hiruhilekoan salmentak %64,0 igo ziren eta 87 milioi eurora iritsi ziren. Herrialde horrekiko harremanak oso baldintzatuta daude erregai mineralen eta aireko nabigaziorako materialaren salmentagatik, gorabehera handiak baitituzte bi partida horiek. Zehazki, azken hiruhilekoan ez zen lehenengo produktuen salmentarik egin, baina bigarren taldearena bikoiztu eta gehiago egin zen. Hala eta guztiz ere, salmenten erdia makineriari dagokio, %70 baino gehiago igo baitzen.

Inportazioek ere hazkunde handia izan zuten (%46,9) 2021eko azken hiruhilekoan, bizi izandako susperraldi ekonomiko indartsuaren une bati dagokion bezala. Erregai minerekin (%127,9) eta gainerakoek (%30,9) urte arteko igoera handiak izan zituzten aldi horretan. Metalen eta horien manuakturen erosketak, inportazioen egituraren pisu handienetakoa duen partidetako batek, igoera handia lortu zuen (%61,2); makinek, berriz, hazkunde esanguratsua izan zuten, baina apalagoa (%11,6).

Inportazioak eremu ekonomikoaren arabera sailkatuta, garapen bidean dauden herrialdeek protagonismo handiagoa dutela ikus daiteke, aurreko urtean baino %93,1 gehiago saldu baitzieten EAEko enpresei, herrialde garatuen %31,8ko hazkundearen aldean. Desberdintasuna, neurri handi batean, erregai mineralen jatorriak azaltzen du. 2021eko laugarren hiruhilekoan eta 2020koan ondasun horien hornitzaile nagusia Mexiko izan zen arren, Errusiarekiko aldea lau milioi eurokoa bakarrik izan zen. Azken herrialde horren atzean, garatzeko bidean dauden beste bi ekonomia kokatu dira (Kazakhstan eta Libia), salmenta kopuru oso handiekin. Herrialde garatuen artean, Erresuma Batuan eta AEBetan egindako erosketetan batez bestekoa baino iguera handiagoak izan dira, bi kasuetan erregai mineralen erosketan izandako gorakadagatik ere bai, nahiz eta AEBetan nekazaritzako produktuen erosketak ere handiagoak izan zen.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2020	2021	2021				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	-21,9	34,1	-1,3	58,9	41,4	46,9	6.154.188
ELGE	-18,9	28,0	3,6	54,3	28,4	31,8	4.166.763
Eurogunea	-14,4	28,5	7,2	58,2	31,7	24,6	2.765.620
Alemania	-14,9	21,1	11,9	42,4	20,8	14,1	890.156
Frantzia	-11,8	29,8	10,3	56,8	32,8	27,5	600.134
Italia	-11,3	34,8	31,5	73,0	40,0	10,6	314.609
Erresuma Batua	-20,0	33,6	25,3	40,9	13,5	53,9	209.773
AEB	-39,9	20,6	-18,8	-19,1	42,1	67,6	219.780
ELGETik kanpokoak	-28,4	48,8	-10,7	69,5	76,2	93,1	1.987.425

Iturria: Eustat.

Inportazioen iguera handiak EAEk atzerriarekin zuen merkataritza saldoa murriztu zuen, eta laugarren hiruhilekoan 820 milioi eurotan geratu zen. 2014tik erregistratu den saldorik txikiena da hori. Alde batetik, saldo ez-energetikoak altua eta EAEko ekonomiaren aldekoa izaten jarraitu zuen, eta 1.956 milioi eurokoa izan zen, aurreko aldietako kopuruen oso antzekoa. Hala ere, saldo energetikoa, normalean EAerentzat negatiboa baita, handitu egin zen aldi horretako produktu energetikoen erosketak handiarekin, eta 1.136 milioi eurora iritsi zen. Kasu honetan, 2011ra joan behar da azken hiruhilekoan erregistratutakoa baino defizit handiagoa aurkitzeko. EAEk aldeko saldoak edukitzen ditu herrialde garatuekin duen harremanean, eta saldo negatiboak ditu, ordea, garatzen ari direnekin, batez ere Txinarekin eta Errusiarekin.

Prezioak, soldatak eta kostuak

Prezioen portaera aztertzen duten adierazleek historikoki oso altuak diren balioak erakutsi zituzten, azken hilabeteetan Ukrainaren eta Errusiaren arteko gatazka belikoaren ondorioz are handiagoak izan zirenak. Hori horrela izanda, eta BPGaren deflatorearekin hasita, adierazle horren igoera %4tik gorakoa izan zen, eta goranzko joera etengabea erakutsi zuen 2021eko hiruhileko guztietan. Nahiz eta osagai guztiek hartu zuten parte gorakada horretan, bai kontsumo pribatuaren deflatorea bai kapital eraketa gordinarena izan ziren gehien handitu zirenak, %4 inguruko erregistroekin.

Bestalde, KPIaren bilakaeraren berariazko azterketan sartu baino lehen, aipatu behar da KPIa familietako kontsumo jarraibideetara egokitu berri dela, erosketen saskia eta ponderazioen egitura eguneratuz 2021eko oinarri berrian. Saski horretako aldaketa aipagarrienen artean, maskara higienikoak sartzea eta on-line egunkariko harpidetza nabarmendu behar dira, argindarraren prezioaren kalkuluan merkatu librearen sartzeak unearen zain, informazio nahikoa xehatua izan ondoren, beharrezko kalitate bermeekin egin ahal izateko.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2020	2021	2021			Ekarpena
			III	IV	Otsaila	
Inflazio osoa (%100)	-0,1	3,1	3,4	5,5	7,4	7,4
Azpiko inflazioa (%79,5)	0,8	1,0	1,0	1,8	3,1	2,2
- Elikagai landuak (%15,8)	1,7	1,4	1,5	2,2	5,0	0,7
- Industria ondasunak (%22,7)	0,3	1,0	1,1	1,8	3,7	0,8
- Zerbitzuak (%41,0)	0,8	0,7	0,7	1,6	1,9	0,7
Hondar inflazioa (%20,5)	-4,0	12,1	13,2	21,1	25,2	5,2
- Landu gabeko elikagaiak (%9,3)	4,0	2,6	2,2	3,5	5,3	0,4
- Energia (%11,2)	-9,4	21,3	23,6	38,0	44,3	4,8

Iturria: INE.

Kontsumoko prezioen bilakaera aztertzen hasita, KPIak goranzko joera etengabea mantentzen du, elektrizitatearen prezioen gorakada nabarmenaren ondorioz, 2021. urtea %6,4an bukatzera eramanez. Bizkortze hori ez zen gelditu 2022. urtearen hasieran, zeren otsailan, datuak

eskuragarri dauden azken aldian, aldakuntza tasa %7,4 izan baitzen, 1986. urtearen amaieratik izandako mailarik handienara iritsiz. Igoera horren arrazoien artean daude, besteak beste, hornidura katearen etenaldi etengabeak, tentsio geopolitikoak, salgaien eskari handia eta energia alorreko osagaiaren hegazkortasuna, Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazka belikoaren ondorioz.

Argindarraz gain, gasaren eta petrolioaren goranzko bilakaera ere aipatu behar da, azaroan izandako beherakadaren ondoren. Hala bada, martxoan, petrolioaren salneurria 130 dolarretik gora kokatu zen upeleko. Balio horiek ez ziren 2012tik jasotzen, batez ere, Errusiako petrolioari enbargoa ezartzeko mehatxuak lehengai horren prezioa garestitu duelako. Orobat, birusaren omikron aldaera ez da espero zen bezain kaltegarria izaten ari. Beste aldetik, herrialde jakin batzuetan, tentsio geopolitikoaren ondorioz, ekoizpen urria gertatu da. Azken batean, eskaeraren beherakada masibo batetik, jarduera itxi zenean, eskari handi baterako eskaintzarik ezaren arazo batera igaro da.

Inflazioaren gorako bilakaera azkar horrek bere horretan jarrai lezake, dela energiaren prezioen zuzenketa aurreratu baino txikiagoa delako, dela Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazkaren ondorioz tentsio geopolitikoak gogortu egin direlako, dela kontsumorako produktuen azken prezioetara transmisioa hasieran aurreikusitakoa baino handiagoa izango litzatekeelako, eta, beraz, bigarren txandako ondorioak izan litezke soldatetara eramatean.

Era berean, prezioek tasarik gorena ezarri zuten berriro euroaren eremuan, zeren eta %5,9ko erregistrora iritsi baitziren 2022ko otsailean, 1997az geroztik izan duten hazkunderik handiena baita, urte horretan hasi baitzen serie historikoa. Hala ere, aldakuntza tasak handiagoak izan ziren EAEn, garestitzea azaltzen duen faktore nagusia elektrizitatea baita, eta lurralde horretan bezeroen ehuneko handi bat merkatu arautuan dago, gorabehera handiagoak erakusten dituen sisteman, alegia.

Energiaren prezio garestiak erosketen saskiko gainerako osagaietara pasatzen ari dira. Hori azpiko inflazioaren bilakaeran ikus daiteke. Izan ere, adierazle horren igoera %3tik gorakoa da, eta osagai guztietan hazkunderik gertatu dira. Zehatz-mehatz aztertuta, energiak eragindako zeharkako ondorio horiek direla eta, azpiko inflazioa osatzen duten elementu nagusi guztiek, zerbitzuek izan ezik, %2tik gorako tasak izan zituzten. Nahiz eta egia den zerbitzuen igoera %2tik behera geratu zela, azpimarratu behar da haren bilakaera, pandemia zela-eta urtearen amaierara arte nolabaiteko atonia izan ondoren, gaur egun goranzko joera dela, aurreko hilabeteetako moderazio rola hautsiz.

Osagairik lurrunkorrenak, berriz ere, inflaziogileenak izan ziren. Zehazkiago adierazita, produktu energetikoen prezioak maximoetan kokatu ziren otsailean, %44,3ko igoera batekin, gasaren eta elektrizitatearen prezioen gorakada garrantzitsuak azaltzen duena. Era berean, landu gabeko elikagaien inflazioak gora egin zuen berriro, eta dinamika horrek zerikusia izan zuen ekoizpen kostuen igoerarekin eta klima-baldintza txarrekin.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021				2022
			I	II	III	IV	Otsaila
Indize orokorra	-0,1	3,1	0,8	2,7	3,4	5,5	7,4
Janariak eta alkohol gabeko edariak	2,8	2,0	1,9	1,3	2,0	2,9	5,3
Edari alkoholduak eta tabakoa	0,2	0,4	0,4	0,0	-0,1	1,2	3,0
Jantziak eta oinetakoak	1,0	1,0	1,0	1,0	1,1	1,0	3,4
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	-3,3	11,3	2,2	10,6	11,9	20,7	26,8
Etxeko hornidura	0,5	1,9	0,9	1,8	2,1	2,8	4,5
Medikuntza	0,5	0,8	0,5	0,7	0,8	1,3	0,8
Garraioa	-3,6	7,3	0,1	8,7	8,6	11,6	12,1
Komunikazioak	-1,1	-2,9	-3,9	-4,5	-2,9	-0,3	-0,7
Aisia eta kultura	-1,0	-0,1	-0,5	-1,1	-0,6	1,6	1,7
Irakaskuntza	1,1	0,9	0,5	0,6	0,8	1,7	1,5
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,2	1,2	0,9	0,4	1,4	2,0	3,0
Besteak	0,9	1,3	0,4	0,8	2,0	2,2	3,2

Iturria: INE.

Gorakada horretan pisu handiena duten produktu multzoen artean, hiru nabarmendu beharko lirateke batez ere, Ukrainako gatazkak eragin handia izan baitu horietan guztietan, eta etxebizitza eta garraioa nabarmendu dira beste behin. Lehenengoak argindarraren prezioaren goranzko joeraren eragina pairatu zuen eta %26,8ko tasan kokatu zen. Garraio taldeari dagokionez, gehikuntza tasa %12,1eraino igo zen, erregaiek gora egiten jarraitu zutelako. Azkenik, elikagaiek eta alkoholik gabeko edariek %5eko tasa gainditu zuten, zenbait lehengairen falta zegoelako.

Industriako prezioei dagokienez, horiek ere igoera oso nabarmenak jaso zituzten, eta iazko azken txanpan are gehiago bizkortu ziren, nahiz eta azaroan goranzko joera gelditu zen, hain zuzen ere koronabirusaren seigarren olatua hasi zenean. Igoera horiek faktura energetikoaren

hazkundeak, lehengaien garestitzeak (hori ere oso esanguratsua) eta 2021ean eskariaren susperraldi handiak ekarritako bultzadak eragin zituzten. Egia da gorakadaren zati handi bat energiaren ekoizpenak eragin zuela, nahiz eta bere bilakaera zerra hortzen itxurakoa izan zen, urtea negatiboan hasi eta argiaren prezioaren gorabehereri lotuta egon ondoren. Bitarteko ondasunek, aldi berean, goranzko bilakaera erakutsi zuten, eta agerian utzi zuten ondasun horiek erabiltzen dituzten sektoreak suspertzen hasi zirela. Aitzitik, kontsumoko ondasunek portaera neurritsuagoa izan zuten, osagaien horniduran gertatu diren arazo ugarien ondorioz, alegia.

Negoiazio kolektiboari dagokionez, Euskadin urtarriletik abendura bitartean sinatutako hitzarmenek %1,2ko soldata-igoera adostu zuten, Estatu osoan erregistratutakoa baino hiru hamarren txikiagoa eta urtetik urterako batez besteko KPItik urrun (%3,1). Horrela, inflazio handiak 2021eko soldata igoerak debaluatzen ditu, eta hori ez zen gertatzen 2017tik. Inflazioaren eta soldaten arteko diferentziala gero eta handiagoa dela alde batera utzita, nabarmentzekoa da, bost urtez jarraian gora egin ondoren, negoziazio kolektiboaren erritmoa gelditu egin zela, pandemiak eraginda, indarrean dagoen hitzarmena duten langileen %45,9rekin.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2019	2020	2021
Indarrean dauden hitzarmenak:	1,5	1,9	2,0	1,7	1,2
- Urtean zehar sinatutakoak	1,7	2,2	2,3	1,2	1,1
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	1,5	2,0	2,1	1,7	1,0
- Enpresako hitzarmenak	1,5	1,6	1,8	1,7	1,9

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azkenik, 2021eko lan kostuak nabarmen igo ziren aurreko urtearekin alderatuta, benetan lan egingako ordu kopuru handiagoaren eta arrazoi teknikoak, ekonomikoak, antolakuntzakoak, produktzioak eta ezinbesteko arrazoiengatik lan egin gabeko orduen murrizketaren ondorioz. Iazko laugarren hiruhilekoko igoerarekin, lan kostuak bost hiruhilekotan egin du gora, aldi negatiboak izan ondoren, 2020ko bigarren hiruhilekotik aurrera hain zuzen ere, langile asko aldi baterako lan erregulazioko espedienteetan sartu baitziren garai hartan.

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021			
			I	II	III	IV
Lan kostu guztiak langileko	-1,1	4,9	3,1	8,9	4,5	3,4
- Soldata kostua guztira	-1,9	4,9	2,7	9,6	4,0	3,8
- Bestelako kostuak	1,1	4,8	4,1	7,3	5,9	2,2
Lan kostu guztiak orduko	5,9	-2,4	2,6	-9,0	-2,9	0,3
- Soldata kostua guztira	5,0	-2,4	2,3	-8,5	-3,4	0,7
- Bestelako kostuak	8,4	-2,6	3,6	-10,4	-1,7	-0,9
Adostutako lan orduak	-0,4	1,5	2,0	1,4	1,3	1,4
Benetan lan egindako orduak	-6,8	7,2	0,5	19,8	7,5	3,0

Iturria: INE.

Arlo publikoa

2021ean zehar, zerga itunduen bidezko diru bilketak gainditu egin zituen EAEko administrazioek egin zituzten kalkulu baikorrenak, pandemiaren aurreko diru kopuruak ere hobetu zituzten erregistroekin. Zehazkiago adierazita, hiru foru ogasunen zerga bilketa 16.000 milioi euro ingurukoa izan zen, 2019an lortu zena baino ia 500 milioi euro gehiago. Horrela, pandemiaren hasieran galdutakoa osorik berreskuratu da, jarduera ekonomikoa oztopatu eta diru bilketaren beherakada eragin zuena, eta hori guztia, nahiz eta iaz osasun egoeraren inguruko ziurgabetasunak eta beste arazo orokor batzuek bere horretan jarraitu zuten, hala nola lehengaien eta materialen energiaren gorakadak.

Zergak biltzeagatik jasotako diru sarrera horiek ekonomia handitzen ari dena baino askoz gehiago hazten ari dira, nahiz eta egia den bai inflazioak bai aldundiek ezarri zituzten ordainketa geroratzeko neurri jakin batzuek, konfinamenduan sortutako diruzaintzako tentsioak gainditzeko enpresei eman zitzaizkienak, diru bilketa hori maximo historikoetan kokatzea ahalbidetu zutela. Halaber, diru sarrera bat gehiago gehitu behar zaio Bizkaiko ogasunari egindako ezohiko transferentzia baten ondorioz, hidrokarburoen merkaturatzeari buruzko auzi baten ondorioz.

TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-abendua)

Mila euro

TRIBUTUAK	Recaudación		
	2020	2021	% Ald. 21/20
PFEZ	5.650.225	6.114.393	8,2
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	5.316.815	5.638.972	6,1
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	135.357	158.803	17,3
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	76.526	78.989	3,2
- Ondare irabazien atxikipenak	49.658	78.552	58,2
- Loteria eta apustu jakin batzuen g/zerga bereziak	7.422	34.124	359,8
- Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatuak	111.120	137.333	23,6
- Kuota diferentzial garbia	-46.673	-12.379	73,5
Sozietateen gaineko zerga	1.042.548	1.155.151	10,8
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	135.357	158.803	17,3
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	76.526	78.989	3,2
- Ondare irabazien atxikipenak	49.658	78.552	58,2
- Kuota diferentzial garbia	781.008	838.808	7,4
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	50.788	62.212	22,5
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	122.169	179.944	47,3
Ondarearen gaineko zerga	177.197	171.456	-3,2
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	27.629	27.509	-0,4
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	29.756	24.673	-17,1
ZUZENEKO ZERGA GUZTIRA	7.100.312	7.735.340	8,9
BEZaren bertoko kudeaketa	3.534.767	4.152.038	17,5
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	140.473	182.440	29,9
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	35.831	40.945	14,3
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	16.063	20.279	26,2
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.685.897	1.888.894	12,0
Aseguru sarien gaineko zerga	79.761	104.638	31,2
Joko jardueren gaineko zergak	6.852	6.591	-3,8
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	2.829	3.207	13,4
Iraungitako zergak	-104	-77	25,9
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	5.502.379	6.398.954	16,3
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	76.453	91.533	19,7
BERTON KUDEATUTAKO TRIBUTU ITUNDUAK	12.679.144	14.225.827	12,2
BEZaren doikuntza	1.628.998	2.104.886	29,2
Zerga berezien doikuntza	-358.892	-367.504	-2,4
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	13.949.250	15.963.209	14,4

Iturria: Foru aldundiak.

Diru bilketaren igoera bai zuzeneko zergen atalean bai zeharkako zergen atalean gauzatu zen. Horiek horrela, lehenengoari dagokionez, eta zerga nagusitik hasita, PFEZ zergak %8,2 handitu zuen diru bilketa. Aurreko aldietan bezala, lan atxikipenengatiko diru sarreren bilakaera bikaina izan zen, oraindik ere, zerga figura horrek gora egiteko elementu erabakigarria. Diru gehikuntza hori enpleguan izandako susperraldiak ekarri zuen, ekonomiak bizi zuen susperraldiaren ondorioz.

Zuzeneko zergapetzearekin jarraituz, eta azterketa sozietateen gaineko zergan fokatuz, zerga horrek ere hazkunde nabarmena erakutsi zuen (%10,8), susperraldi ekonomikoagatik ez ezik, enpresek prezioen igoera marjina handiagoa izan zutelako kostuena baino, inflazio altuagoaren ondorioz.

Zeharkako zergari dagokionez, BEZaren bitartez lortutako diru sarreren azterketak, sozietateen gaineko zergaren kasuan bezala, erakusten du prezioen igoera handiagoak zuzeneko eragina izan zuela bilketan. Prezioak altuagoak direnetan, igo egiten dira zerga horren bitartez eskuratutako dirusarrerak. Era berean, kontsumoaren gorakadak mesede egin zion zerga horri, mugikortasunaren mugak arian-arian ezabatu ondoren, eta, beraz, oso zenbaki positiboak jaso zituen (%17,5). Izan ere, 2020ko lehen seihilekoan ekonomiaren geldialdiak gehien kaltetu zuen zergetako bat ere izan zen.

Azkenik, zerga bereziak izan ziren pandemiaren aurreko mailara iritsi ez ziren bakarrak, nahiz eta horiek ere diru bilketa handitu zuten. Bilketaren igoera murriztu egin zen argindarraren gaineko zergan erabakitako beherakadaren ondoren, argindarraren prezioaren gorakadari aurre egiteko irailetik aurrera onartu zen tarifaren jaitzieraren ondorioz. Zerga bereziak osatzen dituzten gainerako elementuak handitu egin ziren, tabako laboreak izan ezik, eta hidrokarburoen zerga nabarmendu zen, petrolioaren prezioaren igoerak eraginda, lehen aipatutako ohiz kanpoko doikuntzak eraginda.

Arlo finantzarioa

2022ko hasieran, finantza merkatuek erresilientzia handia erakutsi zuten egungo koiuntura ekonomikoaren aurrean. Omikron aldaera eta inflazioaren tentsioak zabaldu ziren arren, burtsek gorakada orokortuekin hasi zuten urtarrila, 2021eko amaierako joerari jarraituz. Ekonomia aurreratuetan diru pizgarriak kentzeari buruz hitz egiten hasi ziren. Fedek *tapering* delakoarekin hasia erabaki zuen eta 2022rako hiru igoera aurreikusi zituen, lehenengoa martxoan. Europako Banku Zentralak (EBZ), otsaileko bileran, mezuaren tonua gogortu zuen, prezioen gorakadaren ondorioz, eta ez zuen baztertu 2022an interes tasak igotzea. Garatzeko

bidean dauden ekonomiek, bestalde, inflazioari eusteko erreferentziazko tasen igoerak handitu zituzten, eta Txinak, banku zentral horiekin ez bezala, erreferentziazko tasa murriztea erabaki zuen abenduan eta urtarrilean, %3,7an kokatu arte.

Hala, urtarrilaren erdialdean, finantza merkatuen kezka nagusia inflazioaren presioen bilakaera zen, eta, batez ere, diru pizgarriak kentzeak ekarriko zituen ondorioak. Hala eta guztiz ere, Errusiak Ukrainari egindako inbasioak dena aldatu zuen. Errusiak Ukrainaren aurka hasitako gerrak nazioarteko finantza merkatuak oro har eta, bereziki, Errusiako finantza sistema ezegonkortu ditu. Finantzaketarako kostuak handitu egin dira, hegakortasunarekin batera. Zor subiranoaren interes tasak igo egin dira finantzaziorako baldintzak gogortzearekin batera, eta burtsek, errusiarrak izan ezik, azken hori itxi egin baitzen, nabarmen egin dute behera, balio negatiboetan kokatu arte. Energiaren prezioek gora egin dute eta dirua burtsetatik atera da txanponetara eta aterpe gisa hartzen diren aktiboetara (urrea), eta horiek balioa irabazteko joera izan dute.

AEBek eta Europar Batasunak, Errusiaren inbasioa dela eta, lehen mailako ekonomia bati aurrekaririk gabeko zigor zorrotzak ezartzea erabaki zuten. Europatik iritsi zen lehen neurrietako bat izan zen debekatuta zegoela Errusiako estatuarentzat eta gobernuarentzat Europako finantza merkatuan sartzea, baita Donbasen jarduerak finantzatzen zituzten bankuentzat ere. Europa banku-negoziaren %70aren kontra joan da, bonuak, akzioak edo maileguak jaulkitzeko debekua ezarri eta bere lurraldean aktiboak izoztuz, nahiz eta Errusiako hiru banku handiak neurri horietatik kanpo geratu diren. Horrek mugatu egiten du Errusiak atzerriko moneta finantzatzeko zorra jaulkitzeko duen ahalmena. Era berean, Errusiako banku nagusiak Swift nazioarteko ordainketa sistematik kanporatu zituzten, Errusiako eguneroko eragiketetan kalte handiena izan dezakeen neurrietako bat. Europako Batzordeak, AEBek, Erresuma Batuak eta Kanadak erabaki zuten Errusiako zenbait erakunde sistematik ateratzea, eta horrek zailagoa egiten du esportazioen truke ordainketak jasotzea.

Halaber, Errusiara bidalitako goi mailako teknologiako esportazioak mugatu egin dira, herrialde hori militarri haztea eragozteko eta balio erantsi handiko sektoreak geldiarazten saiatzeko. Hala, enpresa energetikoen, bankuen, airelineen eta automobilen fabrikatzaileek, besteak beste, murriztu egin dituzte beren bidalketak herrialdera, edo amaitu egin dituzte beren elkarteak (BP, Shell, Volvo, Apple, Nike, PepsiCo eta Coca-Cola, Google, MasterCard eta Visa, besteak beste). Era berean, izugarri murriztu da herrialde horrek bere dibisa erreserbetan egiten duen erabilera. Herrialdeak 630.000 milioi dolar ditu dibisen, urrearen eta eskubideen artean, errubloaren erorketa kontrolatzeko. Kopuru horretatik erdia dolarretan eta eurotan dago. Gainera, Europar Batasunak, hasiera batean, eta AEBek eta Kanadak, ondoren, airelinea errusiarrei beren aireko espazio guztia itxi zieten, isolatuz.

Ezarritako zigorrak soilik Errusiarentzat diren arren, gainontzeko ekonomiak ez dira egoeratik at geratzen ari. Izan ere, hegakortasuna eta arriskuarekiko ezinikusiaren areagotzea merkatu guztietara zabaldu dira. Hain zuzen ere, urtarrilean, prezioen igoera gelditzeko banku zentralen esku hartze handiagoa espero zenez, AEBetako zorraren errentagarritasuna nabarmen igo zen. Era berean, Alemaniako 10 urterako bund-ak, 30 hilabetetan lehen aldiz zenbaki gorriak utzi zituen, eta Europako hegoaldeko herrialdeetako arrisku sariak egonkor agertu ziren, baita Italian ere, presidentea berriz hautatzeko prozesuaren inguruko ziurgabetasuna gorabehera. Hala eta guztiz ere, gerrak dena eten zuen. Inbasioaren ondorioz, inbertitzaileek burtsetatik ihes egin zuten, beherakada handiak jaso, eta aktibo seguruetara jo zuten, hala nola ekonomia indartsuen zor subiranora. Aldaketa horren ondorioz, Alemaniako bonuaren errentagarritasuna, Europako babesleku nagusia, amildu egin da, eta Espainiako, Italiako edo Portugalgo arrisku sariak gora egin dute. Espainiako 105 punturaino igo zen. Diferentzial hori ez zen oinarritzko 100 puntukoa baino handiagoa 2020ko ekainetik. Greziako (240), Italiako (172) eta Portugaleko (93) primek ere gora egin zuten.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (I)

	2020	2021	2021			2022		
			Urr.	Azar.	Aben.	Urt.	Ots.	Mar.(*)
Interes tasa ofizialak (%)								
Europako Banku	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Erreserba Federala	0,25-0,0	0,25-0,0	0,25-0,0	0,25-0,0	0,25-0,0	0,25-0,0	0,25-0,0	0,5-0,25
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10
Ingalaterrako Bankua	0,10	0,25	0,10	0,10	0,25	0,25	0,50	0,75
Txinako Banku	3,85	3,80	3,85	3,85	3,80	3,70	3,70	3,70
Brasilgo Banku Zentr.	2,00	9,25	7,75	7,75	9,25	9,25	10,75	10,75
10 urteko zor publikoaren errentagarritasuna								
Alemania	0	0	0	0	0	0	0	0
Espainia	63	77	77	75	77	74	100	98
Grezia	120	149	149	159	149	176	238	232
Erresuma Batua	77	115	119	115	115	129	126	122
Italia	110	136	129	131	136	135	160	159
AEB	149	168	171	178	168	177	168	177

(*) Martxoaren 15eko datuak

Iturria: Espainiako Bankua.

Nazioarteko burtsen bilakaerari dagokionez, urtarrilaren amaieran Errusiak Ukrainan esku hartze armatu bat egiteko mehatxua egin zuen, NATO bere eragin eremuko herrialdeetara zabaltzea geldiarazten ez bazen. Analistek eta inbertitzaileek aukera gutxi ematen zuten arren,

hegakortasunak burtsak inbaditu zituen. Otsailaren amaieran, Errusia Ukrainan sartu zenean, hegakortasun hori areagotu egin zen eta burtsetan izua eragin zuen. Hala, erreferentziazko indizeek, bai Europan bai AEBetan, %10 inguruko edo hortik gorako galerak izan zituzten urtearen hasieratik martxoaren erdialdera arte, eta ahulezia sektore gehienetara iritsi zen, energia eta teknologia sektoreetara izan ezik.

Zehazkiago adierazita, Europako burtsak izan ziren zigortuenetakoak, Errusiak Ukrainan egindako erasoaldiak zuzenean kaltetuenak izan baitziren. Eurostoxx, Europako erreferentziazko indizea baita, %13,0 jaitsi da urtearen hasieratik martxoaren 15era arte. Pariseko, Amsterdameko, Varsoviako, Frankfurteko eta Vienako burtsek %6 eta %12 bitarteko zenbaki gorriak eskuratu dituzte. Alemaniako Dax indizeak %12,4ko galera pilatu du, eta, oraingoz, gatazkak gehien kaltetu duen indizea da, bai borroka eremutik gertu dagoelako, bai, batez ere, ondorio ekonomikoengatik, Errusiaren Europako merkataritza bazkide handiena delako. Azkenik, Ibex indizeak 9.300 puntu gainditu zituen pasa den maiatzean pandemiaren osteko maila gorenean, eta martxoaren 7an, berriz, 7.650 puntutik behera itxi zuen, maximo horiek baino %17,7 beherago, hain zuzen. Gainera, beheranzko merkatua deitzen den egoeran sartzeko zorian egon zen, aurreko maximotik %20 edo gehiago jaitsi baitzen. Hala ere, martxoaren erdialdean metatutako galera %4,4 ingurukoa da.

Atlantikoaren beste aldean, bilakaera antzekoa izan zen. Standard & Poors indizeak %11,3 egin zuen behera erreferentziazko aldian, eta Dow Jones indizeak, berriz, %7,7. Indize amerikarren portaera erlatibo hobea, funtsean, sektore energetikoan oinarritzen da, petrolioaren prezioek gora egin baitzuten, eta upeleko 123 dolarretik gorakoa izan zen West Texasen kasuan (erreferentzia da Estatu Batuetan) eta 133 dolarretik gorakoa Brent europarrean.

Errusiako burtsari dagokionez, Errusiako Bankuak, herrialde hartako finantzak arautzen dituen erakundea baita, Moskuko parketa ixtea erabaki zuen otsailaren 25ean, MOEX indizeak, errublotan izendatua baita, eguna %20ko igoerarekin amaitu zuenean, 2.470,48 punturaino igota, aurreko egunean %33 jaitsi ondoren. Gaur arte, burtsa horrek hiru aste daramatza itxita, bere historiako itxiera aldirik luzeena dena, 1998ko krisi ekonomikoan izandako denbora ere gaindituz.

Arriskuarekiko gorroto egoeretan ohikoa den bezala, dirua burtsetatik dolarra, yena, franko suitzarra eta urrea bezalako babes aktiboetara joan zen. Dolarra bere ekonomiaren sendotasunaz eta Erreserba Federalak interes tasak eurogunean baino askoz lehenago igotzeko aurreikuspenaz baliatu zen. Horrela, dolarra dibisa nagusien aldean nabarmendu zen. Euroa 1,21 dolarren truke aldatu zen maiatzean, eta orain 1,09 dolarrei eusteko lehian ari da, 22 hilabetetan maila minimoari eusteko. Izan ere, euroa bi tokitatik ateratzen da kaltetuta, Errusiarekiko tentsio ekonomikoaren epizentroan dagoelako eta, aldi berean, petrolio eta gas salmenten mende

dagoelako. Europako dibisaren balio galtzeak are gehiago garestitzen ditu lehengaien inportazioak, etengabe igotzen ari baitira haien prezioak, eta inflazioa are gehiago bizkortzen.

Aldi berean, zazpi urtean lehen aldiz, euroa parekotasunetik behera jaitsi zen franko suitzarraren aldean. Txanpon hori urreak babestutako dibisa bat da, eta babes balio gisa jokatzeko ari da Ukrainako gerra testuinguru honetan. Martxoaren 7an urrezko lingotearen kotizazioa 2.000 dolarretik gorakoa izan zen lehen aldiz 2020ko abuztutik, eta horrek indartu egin zuen franko suitzarraren balio irabazia.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (II)

	2020	2021	2021			2022		
			Urr.	Azar.	Aben.	Urt.	Ots.	Mar.(*)
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,141	1,184	1,160	1,141	1,130	1,131	1,134	1,101
Yena/euro	121,8	129,9	131,2	130,1	128,8	130,0	130,7	127,4
Libera esterlina/euro	0,889	0,860	0,847	0,848	0,849	0,835	0,838	0,833
Yena/dolarra	106,8	109,8	113,1	114,0	113,9	114,9	115,2	116,3
€ efektibo nomin.(%)	99,7	99,7	98,4	97,6	97,1	96,6	96,9	95,9
Burtsa indizeak (**)								
IBEX35	-15,5	7,9	12,2	2,9	7,9	-1,2	-2,7	-4,4
Eurostoxx-50	-5,1	21,0	19,6	14,4	21,0	-2,9	-8,7	-13,0
Dow Jones	7,2	18,7	17,0	12,7	18,7	-3,3	-6,7	-7,7
Nikkei 225	16,0	4,9	5,3	1,4	4,9	-6,2	-7,9	-12,0
Standard & Poors	16,3	26,9	22,6	21,6	26,9	-5,3	-8,2	-11,3

(*) Martxoaren 15eko datuak

(**) Hazkunde metatua urte hasieratik hilekoaren azken egunera arte.

Iturria: Espainiako Bankua.


Errubloa da tentsioen hazkunde horren kaltetu nagusia, dolarraren eta euroaren aldean balioaren %40 baino gehiago galdu baitu urtearen hasieratik. Zehazki, martxoaren 7an, errubloak gutxieneko balio historikoa erregistratu zuen euroaren aldean, eta 0,0061 eurotan kotizatu zuen. Zifra hori bat etorri zen Moody's agentziak Errusiako zorraren kalifikazioan egindako murrizketarekin. Izan ere, Ca ratingeraino jaitsi zuen, zabor bonuztat hartzen dena eta ez ordaintzeko probabilitate handikoa. Errusiako dibisak behera egin du, nahiz eta Errusiako Bankuak erreferentziazko interes tasa %9,5etik %20,0ra igo, eta atzerriko inbertitzaileek Errusiako finantza aktiboak saltzeko murrizketa ugari ezarri.

Otsaileko bileran, EBZk adierazi zuen prest zegoela tresna guztiak doitzeko, egoerak eskatzen duen arabera, inflazioa epe ertainean %2,0ko helburuan egonkortuko dela bermatzeko, eta, aurreko bileretan ez bezala, zeinetan 2022an interes tasak igotzea baztertzeko ote zen galdetuta, bere erantzuna gertagaitza zen; azken bilera horretan, ordea, uko egin zion irimotasun horrekin iritzia emateari, eta datuetara jo zuen. Merkatuek interpretatu zuten Lagardek atea irekitzen ziola interes tasen igoerari, oro har, inbertitzaileek abenduan kokatzen zutena. Horrek berehalako erreakzioa izan zuen euriborraren gainean, eta otsailean igo egin zen, 2020ko uztailetik lortzen ez ziren balioetaraino.


Martxoko bileran, EBZk iragarri zuen erosketa garbiak amaitu eta denbora batera arte ez direla aldatuko interes tasak, eta zehaztu zuen denbora muga astebetekoa edo zenbait hilabetekoa izan daitekeela, datuen bilakaeraren arabera. Horrek guztiak pentsarazten du tasak ez direla igotzen hasiko 2023ko lehen hiruhilekoaren amaieran baino lehen. Hala ere, euriborrak goranzko bideari jarraitu zion. Martxoaren 14an -%0,258koan kokatu zen. Bi hilabeteko epe laburrean, tasa minimoetan (-%0,502) egotetik oraingo tasa horretara igaro da.

Etxebizitzen hipoteken bilakaera

Zenbatekoa (ezkerrean, milioiak) hipoteka kopurua (eskuinean, milak)



Euriborra 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

2021eko amaierara arte, euriborra minimoetan zegoela, bankuek diru gehiago irabazten zuten hipoteka finkoekin aldakorrekin baino, tasa finko oso baxuak eskainiz (Espainiako historiako merkeenak, Espainiako Bankuaren arabera) bezeroak modalitate horretara hurbiltzeko. Hala jasotzen dute INEk 2021eko laugarren hiruhilekoari buruz argitaratutako datuek, non hipoteken %67,5 tasa finkoan formalizatu ziren. Hala ere, euriborrak gora egin duenez, bankuak eskaintzak

aldatzen hasi dira, eta tasa aldakorreko hipotekak formalizatzea sustatu dute, tasa finkoko hipoteken kaltetan.

Higiezin merkatuaren susperraldiak, 2020ko geldialdiaren ondoren etxebizitzaren salerosketen eragiketak nabarmen areagotuz, eragin zuzena izan zuen hipoteken merkaturan. INEren datuen arabera, 20.597 hipoteka sinatu ziren iaz Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. 2010az geroztik, inoiz ez da hainbeste eragiketa erregistratu, baina estatistika horren arabera, zifra hori 2006an, aurreko krisia lehertu aurretik, sinatutako eragiketen erdia ingurukoa da oraindik. Beste aldetik, etxebizitza erosteko hipoteken batez besteko interes tasa %2,51 izan zen 2021ean: %2,20 tasa aldakorreko hipoteketan eta %2,73, berriz, tasa finkoko hipoteketan. Urte osoa kontuan hartuta, hipoteken batez besteko zenbatekoa %13,7 igo zen 157.222 eurora arte, 2008tik izan duen baliorik altuenera.

INEren datuen ildotik, banku maileguren inkestak jasotzen duenez, urteko laugarren hiruhilekoan Espainian kredituen eskariak behera egin zuen enpresei eta etxeei kontsumorako eta beste helburu batzuetarako emandako kredituei dagokienez, eta familiak etxebizitza erosteko finantzatzeko segmentuak, berriz, goranzko joerari eutsi zion.

KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2020	2021	2021					Aldea 2008-IV eta 2021-IV	
			I	II	III	IV	IV	Milioi €	Tasa
Kredituak	2,4	0,1	3,5	-1,4	-0,9	0,1	70.252,9	-17.166,6	-19,6
Arlo publikoa	7,0	15,8	18,3	-3,2	10,6	15,8	9.437,0	7.408,7	365,3
Arlo pribatua	1,8	-1,9	1,8	-1,1	-2,6	-1,9	60.815,9	-24.575,3	-28,8
Gordailuak	5,7	4,7	8,6	4,4	6,3	4,7	96.159,9	19.816,3	26,0
Arlo publikoa	27,1	53,1	51,4	15,2	53,7	53,1	9.344,9	3.611,7	63,0
Arlo pribatua	4,4	1,2	6,5	3,6	3,3	1,2	86.815,0	16.204,6	22,9
Agerikoak	9,0	5,1	11,1	7,7	7,5	5,1	79.178,0	52.190,4	193,4
Eperakoak	-20,1	-26,6	-19,6	-22,5	-24,4	-26,6	7.637,0	-35.985,9	-82,4

Iturria: Espainiako Bankua.

Likidezia beharrak finantzatzeko funtsen eskaerek gorakada handia izan zuten 2020ko bigarren hiruhilekoan, osasun alorreko krisiak ezarri zituen murrizketen ondorioz. Harez geroztik, banku maileguen eskariak beheranzko joerari eutsi dio 2021eko azken hiruhilekora arte. Itxura guztien arabera, enpresa batzuek 2020an metatutako likidezia koltxoien zati bat erabili dute, eta beste batzuek finantzaketaren zati bat errenta finkoko banku-maileguekin ordezkatu dute, eta horrek kredituen eskaria murriztea eragin du. Familiek antzera jokatu dute. Gastu berriak pandemian pilatutako aurrezkiarekin finantzatu dira eta, ziurgabetasunaren ondorioz, kontuak onbideratzen jarraitu dute. Horregatik guztiagatik, kreditu osoa %0,1 baino ez zen hazi 2021ean, zorpetze publikoaren hazkundeak bultzatuta (%15,8), pribatua %1,9 murriztu baitzen. Izan ere, sektore pribatua 278 milioi eurora baino ez dago 2020ko hasierako zorpetze mailan egotetik, eta sektore publikoak 2.150 milioi baino gehiago gainditzen du pandemiaren aurreko zor metatua.

Gordailuei dagokienez, burtsek urte amaieran errebalorizazio handiak izan zituzten arren, pandemiaren ondoriozko ziurgabetasunak, murrizketa jarraituek eta olatu berrien agerpenak inbertitzaileek aktibo seguruagoetan inbertitzearen aldeko apustua egitera eraman zituen. Gordailu publikoek zein pribatuek hazkunde positiboak izan zituzten, eta, gordailu publikoen kasuan, orain arte erregistratutako zenbatekorik handiena metatu zuten. Gordailu pribatuak, bestalde, 86.815 milioi euro inguru izan ziren, bigarren erregistrorik onena baita, beste behin ere ageriko gordailuek sostengatu zutena, sektore pribatuak egindako ezarpenen %91,2 metatu baitzuten. Sektore pribatuak kontratatutako eperako gordailuek berriro galdu zituzten jarraitzaileak, eta 7.637 milioi euro izan ziren guztira, 1990eko lehen hiruhilekotik izan duten kopururik txikiena.

Aurreikuspenak

Otsailaren 24an, Errusiako armadak Ukraina inbaditu izanak eragin geopolitiko handia ekarri du berekin. Egoera larri honetan, gatazka honen kezka nagusia gertatzen ari den tragedia humanoa eta soziala da, baina beharrezkoa da, orobat, gerraren eragin ekonomikoa kuantifikatzen saiatzea ere. Mundua pandemiaren ondorio kaltegarrietatik ateratzeko prozesuan dago oraindik, 2020an hasitako osasun eta ekonomia krisi izugarriaren ondoren normaltasunera itzultzeko ahaleginarekin. Munduko hazkunde ekonomikoak 2023an pandemiaren aurreko mailetara itzultzea espero zen, txertaketa kanpainen garapenei, laguntza makroekonomikoko politikei eta finantzaziorako baldintza onuragarriei esker. Hala eta guztiz ere, Errusiak hasitako gerrak erabat baliogabetzen du otsailaren 24a baino lehen egindako edozein aurreikuspen ekonomiko. Munduko egoera makroekonomikoei dagokienez, ziurgabetasun handia dago gatazkaren iraupenari eta tamainari buruz, eta, ezinbestean, susperraldiaren bidea oso ahulduta geratuko da.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2021	2022	2023	2021	2022	2023
Munduko ekonomia	5,8	3,8	3,1	3,6	5,2	3,0
AEB	5,7	3,3	2,4	4,7	6,6	3,0
Kanada	4,6	3,8	2,9	3,4	5,1	2,6
Japonia	1,7	2,3	1,8	-0,2	1,4	0,9
Eurogunea	5,3	3,2	2,3	2,6	5,7	2,1
Europar Batasuna	5,3	3,4	2,5	2,6	5,1	2,2
Alemania	2,7	2,4	2,6	3,1	5,2	2,4
Espainia	5,0	5,1	3,4	3,1	6,3	1,7
Frantzia	7,0	3,3	1,7	1,7	3,9	1,9
Herbehereak	4,8	3,3	1,9	2,7	6,1	2,0
Italia	6,7	3,4	2,0	1,9	5,8	1,9
Erresuma Batua	7,5	3,9	1,6	2,6	6,7	3,6
Asia eta Ozeano Barea	6,1	4,5	4,3	1,5	2,6	2,2
Ekialdeko Europa	5,8	3,5	3,2	8,7	12,8	6,5
Amerika Latinoa (Venezuela ezik)	6,6	2,1	2,3	11,8	9,2	7,5

Iturria: Consensus Forecasts (2022ko martxoa).

Aurreikuspen ekonomikoak egiteko ardura duten nazioarteko erakundeak beheranzko berrikuspen sakonak argitaratzen hasi dira. Esate baterako, Consensus Forecasts-ek, martxoko txostenean, 2022an %3,8ko hazkundea eta 2023an %3,1ekoa ezartzen du mundu osoan. Hala ere, gerraren hasieraren hurbiltasunagatik, erakunde batzuek oraindik ez dute shock exogeno hori beren perspektibetan sartu, eta, beraz, beheranzko zuzenketa batzuk aurreikusten dira datozen asteetan.

Maila globalean, munduko ekonomia hainbat frontetan sufritzen ari da. Gatazka armatuak eragin negatiboa izango du hazkunderan, finantza merkatuetan izango dituen ondorioen, prezioen maila altuen gaineko presio handiagoen, hornidura kateko botila lepo iraunkorren eta eragile ekonomikoen konfiantzan izango dituen ondorioen bidez. Mendebaldeko ekonomiek Errusiaren aurka ezarritako zigorraren sortak haren ekonomiari eragingo dio, isolamendu ekonomiko eta finantzario batekin, baina, era berean, zeharkako ondorio esanguratsuak izango ditu munduko ekonomian, energiaren, metalen eta elikagaien prezioen igoeraren bitartez. Munduko hazkundea mehatxatzen duen beste faktore bat ondasunen hornidura etetea da, eta litekeena da munduko eskaintzaren botila lepoak 2022an zehar irautea.

Alde batetik, Errusiak eta Ukrainak munduko ekonomian duten pisua txikia da nazioarteko merkataritzan eta finantza fluxuetan. Hala ere, beste aldetik, bi herrialdeek garrantzi handia dute ekonomia globalean, lehengaien hornitzaile garrantzitsuak direlako. Gerrak eskaintza shock bat eragin du mundu osorako oinarritzko jarduera-adarretan. Izan ere, munduko eskaintza kateak energiaren, metalen eta lehen sektorearekin eta elikadurarekin lotutako gaien esportazioen mende daude. Gatazka armatuan inplikaturako herrialdeetako lehengaien mende dauden metalak eta mikrotxipak bezalako produktuak hornitzeko arazoak nabarmen areagotuko dira.

Eurogunea da egungo gatazka geopolitikoaren aurrean kalteberena den eskualdeetako bat, Errusiatik duen hurbiltasun geografikoa eta energiaren arloan duen mendekotasun handia kontuan hartuta. Consensus Forecasts-ek 2022an %3,2ko hazkundea aurreikusten du, eta 2023an, berriz, %2,3koa. Aurreikuspen berrietan, inflazioa handiagoa izatea espero da, botila lepoek eragindako kostuen gaineko presioen ondorioz. Consensus Forecasts-ek kalkulatu duenaren arabera, euroguneko prezioak %5,7 eta %2,1 igoko dira 2022an eta 2023an, hurrenez hurren. Energiaren prezio altuagoek kontsumo eta inbertsio txikiagoa ekarriko diote eskari agregatuari. Halaber, bigarren txandako ondorioek, hala nola soldata igoerek, inflazioa maila altuan mantendu dezakete epe luzeagoan. Europako Banku Zentralak energiaren eta elikagaien prezio maila handiaz ohartarazi du, eta estanflazioaren (hazkunderik gabeko inflazioa) arriskuari aurre egin beharko dio. Horren ondorioz, moneta agintaritzak politiken normalizazio erritmoa 2022an espero zena baino motelagoa da. Alde positibotik, Europako funtsek eta Europar Batasunaren aurrekontuak bultzatutako inbertsioek ekarpen handiagoa eman diezaiokete jarduera ekonomikoari.

Espanian ere, aurreikuspenek beheranzko zuzenketa handiak jasan dituzte, eta bat datoz susperraldi ekonomikoa ahulduko delako ideiarekin. Espainiako ekonomiarako hazkunde aurreikuspenak, Consensus Forecasts-ek zenbatetsitakoak, %5,1 da 2022rako eta %3,4, berriz, 2023rako. Hala ere, kontuan hartu behar da hazkundearen batez besteko kalkulu horretan zenbait hazkunde aurreikuspen erabili direla, gerrak Europan izan duen eragina oraindik kontuan hartu ez dutenak. Funcasen panelean, eta eragin hori kontuan hartu duten panelistak bakarrik hartuta, hazkunde ekonomikoaren batez besteko aurreikuspena %4,6koa izango da 2022an. Agertoki makroekonomikoen gaineko arrisku nagusia Errusiak Ukrainaren aurka hasitako gatazka armatua da, iraupenari, tamainari eta hedapenari buruzko zalantza handiak dituenak. Funcasen panelean, kolaboratzaile gehienek uste dute egungo testuinguruak bere horretan jarraituko duela datozen hilabeteetan, edo okerrera ere egingo duela.

Inflazio tasari buruzko batez besteko aurreikuspenak nabarmen zuzendu dira gorantz, eta %5,8 da batez besteko tasa 2022rako. Lan merkatuari dagokionez, Funcasen panelak espainiar ekonomiarentzat, Ukrainako gerra kontuan hartu ez duten panelistak alde batera utzita, enplegua 2022an %3,4 haziko dela aurreikusten du. Langabezia tasak altu jarraituko du, baina

beheranzko bilakaera argia erakutsiko du, nahiz eta hazkunde aurreikuspenak okerrera egin duen. Batez bestekoa %13,9an kokatu da 2022rako.

ESPAINIAKO EKONOMIARAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2022ko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Eskari Nazionala		KPI		Enplegua (LOLB)		Langabezia (BAI)	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022
Merkataritza ganbera	5,0	4,3	4,6	3,0	3,1	6,7	6,7	3,2	14,8	14,5
CEEM-URJC	5,0	4,6	4,6	3,9	3,1	7,2	6,7	2,5	14,8	14,9
CEPREDE-UAM	5,0	5,7	4,6	5,2	3,1	5,2	6,7	4,7	14,8	13,3
CEOE	5,0	4,7	4,6	3,8	3,1	5,9	6,7	3,6	14,8	13,9
Equipo Económico	5,0	4,6	4,6	3,7	3,1	7,8	6,7	3,4	14,8	13,5
EthiFinance Ratings	5,0	5,3	4,6	--	3,1	4,1	6,7	--	14,8	13,5
FUNCAS	5,0	4,2	4,6	3,6	3,1	6,8	6,7	1,9	14,8	14,0
ICAE-UCM	5,0	5,3	4,6	4,6	3,1	4,0	6,7	4,2	14,8	13,5
IEE	5,0	4,3	4,6	3,4	3,1	5,6	6,7	3,1	14,8	14,2
Intermoney	5,0	5,5	4,6	5,1	3,1	6,1	6,7	3,7	14,8	14,2
Mapfre Economics	5,0	4,8	4,6	3,9	3,1	4,5	6,7	--	14,8	13,9
Oxford Economics	5,0	4,8	4,6	4,2	3,1	5,8	6,7	--	14,8	13,9
Repsol	5,0	3,8	4,6	2,2	3,1	6,2	6,7	3,5	14,8	13,3
Santander	5,0	4,8	4,6	3,4	3,1	6,1	6,7	--	14,8	13,6
Metyis	5,0	2,9	4,6	3,7	3,1	4,6	6,7	3,4	14,8	14,5
Batez bestekoa	5,0	4,6	4,6	3,8	3,1	5,8	6,7	3,4	14,8	13,9

Fuente: Funcaseko panela

Ingurune makroekonomikoari eta EAEko ekonomiaren berezko adierazle eguneratuei buruz eskuragarri dagoen informazioarekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2022rako koadro makroekonomikoa berrikusi du eta bertan beheranzko zuzenketa garrantzitsua egin du. Halaber, 2023rako datuak ere zenbatetsi ditu. Aurreikuspenen agertoki berrian islatutako emaitzen arabera, EAEko ekonomiak 2022an %4,5eko batez besteko hazkundea izango du eta %4,1, berriz, 2023an. 2022. urteko doikuntza garrantzitsua, batez ere, Ukrainako gerrak munduko ekonomian, oro har, eta EAEko ekonomian, bereziki, izango dituen ondorioei zor zaie.

Eszenatoki berri horrek susperraldi ekonomikoa atzeratuko dela iradokitzen du eta pandemia hasi aurreko BPGaren mailara itzultzea 2022ko laugarren hiruhilekoan lortuko dela aurreikusten du. Halaber, munduko ekonomian bezala, ziurgabetasuna oso handia da, eta EAEko ekonomiak ere arrisku horiek partekatzen ditu. Ukrainako gatazkaren bilakaerak, etorkizunean ezar daitezkeen zigor berriek eta inflazioan bizi diren tentsioen ibilbideak ezkortasun orokorreko bidea markatzen dute.

Gatazkak hainbat modutan eragingo die EAERI eta Europako gainerako herrialdeei zein herrialde garatuei. Ezagutu den lehena energia alorreko osagaien prezioak azkar igotzea izan da. Hain zuzen ere, gerra hasi zenetik, petrolioaren, gasaren eta elektrizitatearen prezioek oso gora egin dute. Hala, urtarrilean Brent motako petrolioaren upela 88 dolarretan ordaindu zen; otsailean, Ukrainako mugan zehar Errusiako tropak hedatu izanak sortu zuen tentsioarekin, 99,8 dolarretara igo zen, eta martxoan, inbasio betean, 130 dolarretik gorakoa izan zen zenbait egunez, eta, geroago prezioa jaitsi bazen ere, upela 110 dolarretik gora dago oraindik. Gasaren kasuan, 227,2 eurora igo zen MWH, baina 105,0 eurora jaitsi da, urte hasierako 80 euroen gainetik.

Igoera horiek eragina izaten ari dira energiaren erabilera intentsiboa egiten duten EAEko enpresetan. Jarduera batzuk aipatzearen, garraioa, metalurgiak, altzairutegiak, arrantza, abeltzaintza eta papergintza aipa daitezke. Horietako batzuek jarduera eten dute martxoan, ezin izan dutelako prezioaren igoera bere gain hartu. Beste inpaktu bat lehengaien eta metal industrialen eskasiarekin lotuta dago, Errusia haien erreferentziazko esportatzailea baita. Adibidez, nikela eta paladioa, besteak beste. Halaber, Ukrainak Europako eta Afrikako zati handi bat zerealez hornitzen duela ez da ahaztu behar. Beraz, bide horren eraginpean geratuko dira manufaktura eta nekazaritzako elikagaien industria.

Eskariaren ikuspegitik, agertoki berria aurrekoaren desberdina da kanpo saldoaren portaeran. 2021ean, EAEko esportazioek emaitza bikaina izan zuten, eta bigarren seihilekoan ekarpen positiboa egin zitzaion BPGari. Horregatik, aurreko taula makroekonomikoan joera onari eutsiko ziola eta 2022an beste ekarpen positibo bat egingo ziola aurreikusi zen. Hala ere, gaur egun kanpo eskari txikiagoa, ziurgabetasun handiagoa, inflazio altua eta botila lepo gehiago dagoenez, merkataritza saldoa negatiboa izan daiteke aurten, eta positiboa, txikia bada ere, datorren urtean.

Ziurgabetasuna zabaltzen ari da eragile ekonomikoen artean eta zuhurtziak gastua murriztera bultzatzen du. Familien kasuan, inflazioak erosteko ahalmena gutxitzen du, eta, beraz, kontsumo pribatua ez da horrenbeste haziko. Familiek beren kontsumoa motelduko dute inflazioaren igoeragatik eta gerrak ekarri duen ziurgabetasunagatik. Horren ondorioz, pandemian zehar metatutako aurrezkiak denbora gehiago beharko du kontsumo bihurtzeko. Horregatik, kontsumo pribatuaren estimazioa %4,8ra jaitsi da 2022rako, eta %4,0ra, berriz, 2023rako.

Aitzitik, kontsumo publikoak hedapen tonuari eutsi beharko dio, eta %3,2 zein %2,6 haziko da 2022an eta 2023an, hurrenez hurren.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2022ko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022				2022	2023
	I	II	III	IV		
BPG	5,6	4,0	4,1	4,1	4,5	4,1
Azken kontsumoa	5,2	4,2	4,2	4,1	4,4	3,7
Kontsumo pribatua	5,9	4,4	4,6	4,3	4,8	4,0
Kontsumo publikoa	2,9	3,5	3,0	3,5	3,2	2,6
Kapital eraketa gordina	5,8	5,0	4,6	4,4	5,0	4,3
Barne eskariaren ekarpena	5,6	4,6	4,5	4,4	4,8	3,9
Kanpo saldoaren ekarpena	0,0	-0,6	-0,4	-0,3	-0,3	0,2
Lehen arloa	7,6	-7,5	-6,2	1,6	-1,4	-5,5
Industria eta energia	4,7	3,5	3,8	3,7	3,9	4,2
Eraikuntza	2,8	3,4	3,5	4,0	3,4	4,0
Zerbitzuak	6,1	4,3	4,4	4,4	4,8	4,2
Balio erantsi gordina	5,6	4,0	4,1	4,2	4,4	4,1
Ekoizkinen gaineko zergak	5,9	4,2	4,1	4,0	4,6	3,9
BPG nominala	10,5	8,6	8,5	7,8	8,8	6,5
BPGaren deflatoarea	4,6	4,4	4,2	3,5	4,2	2,3
Lanaldi osoko lanpostuak	4,5	2,6	2,0	2,1	2,8	1,8
Landunak (BJA)	3,1	1,5	1,1	1,4	1,8	0,8
Langabezia tasa	9,4	9,8	9,5	9,4	9,5	9,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko enpresen kasuan, merkataritzako bazkideek eskaria murriztuko dute ziurgabetasun horren ondorioz, eta horri hornidura kateetan berriro agertuko diren tentsioak gehitu beharko zaizkio. Testuinguru berriak kapital eraketa gordinean izango duen eragina oso garrantzitsua da, antzeko arrazoiengatik: ziurgabetasuna, lehengaien garestitzea, eskariaren murrizketa eta eskaeren atzerapenak. Kasu horretan, hazkunde aurreikuspena %5,0 izango da 2022rako, eta %4,3, berriz, 2023rako.



Eskaintzaren analisian, agertokiaren okertzea sektore nagusi guztietara hedatu da. Gainontzekoen gaitetik, industriaren beheranzko zuzenketa nabarmentzen da, 2022an %3,9 haziko baita. Hasiera batean, industria izango da gaur eguneko zailtasunen aurrean gehien pairatuko duen ekoizpen jarduera, baina gainerakoek ere nozituko dute eragina. Eraikuntzak indarra galduko du lehengaien garestitzeagatik eta hornidura arazoengatik, sektorearen ekoizpena mugatuko baitute. Azkenik, zerbitzuek, batez ere familien eskaerari erantzuteko zerbitzuek, kontsumo pribatuaren apaltzea nabarrituko dute.

2022ko eta 2023ko aurreikuspenak (I)

Urte arteko aldakuntza tasak

Barne produktu gordina

Enplegua



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Hasieran aurreikusitakoa baino BPGaren hazkunde txikiago batek enplegu gutxiago sortzea dakar berekin, bai lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, bai landunetan. Hala eta guztiz ere, oraingo agertokian, enpleguak aurten %2,8 gora egitea espero da lanpostuetan, hau da, benetan lan egindako orduetan, eta %1,8, berriz, landunetan. Datorren urtean, lan merkatuaren bilakaera onak bere horretan jarraituko du eta zenbatekoak %1,8 eta %0,8 izango dira. Horri esker, aurten aurreikusitako langabezia tasa %9,5 izango da, 2021ekoa baino puntu erdi txikiagoa, eta datorren urtekoa %9,1.

Lehenago adierazi den bezala, inflazioa Europako ekialdeko gerraren ondorio nabarmenetako bat da. Espero da BPGaren deflatoarea %4,2ra igoko dela aurten urteko batez bestekoan, baina datorren urtean %2,3ra jaitsiko da, eta urtearen amaiera %2tik beherakoa izango da. Urte honetarako, nahiz eta BPG erreala 2021ean baino nabarmen gutxiago handituko den (%4,5,

iazko %5,6aren aldean), prezioen igoeraren ondorioz BPG nominala %8,8 igoko da. 2023an, BPG nominalerako aurreikusitako igoera %6,5 izango da.


Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egungo agertoki makroekonomikoa landu du munduko hazkunde ekonomikoari, deflatoreei, Europako Banku Zentralak markatzen duen interes tasari, eta 2022 eta 2023 urteetarako euroak dolarrarekiko izango duen truke tasari buruzko hipotesietan oinarrituta. Hipotesi horien artean, ekonomia garatuentzat espero den hazkunde txikiagoa nabarmentzen da, horiek baitute eragin handiena EAEko ekonomiaren bilakaeran.

Era berean, deflatoreen balioa gorantz zuzendu da oraingo taula makroekonomikoan, azken asteetan prezioek erakutsi duten goranzko bilakaera bizia ikusita. Moneta politikaren normalizazioaren hasiera ere zertxobait atzeratu da, eta euroaren balioa ahuldu egin da dolarraren aldean, gerrak kalte handiagoa egingo baitio Europari AEBei baino. Azkenik, ziurtzat jo da gatazka ez dela epe laburrean konponduko, eta, intentsitate txikiagoarekin bada ere, epe luze batean zehar mantenduko dela.


2022ko eta 2023ko aurreikuspenak (II)

Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2022



Aurreikuspen panela 2023



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (2022ko martxoa), Ceprede (2022ko otsaila), BBVA (2022ko urtarrila), Laboral Kutxa (2021eko abendua), Confebask (2021eko abendua) eta Hispalink (2022ko otsaila-BEGren aldakuntza).

Eusko Jaurlaritza da Europako ekialdean dagoen gerra kontuan hartu duen erakunde bakarra 2022rako eta 2023rako aurreikuspen ekonomikoen hipotesietan. Beste erakunde batzuek EAEko ekonomiari buruz egindako gainerako iragarpenak ez dira oraindik eguneratu. Horrela, 2022rako, beheko muturrean Eusko Jaurlaritzak egindako hazkunde aurreikuspena dago kokatuta (%4,5), eta goiko muturrean Laboral Kutxak aurreikusi zuena (%6,3). 2023rako, egungo aurreikuspenak Cemprederen %3,7 eta BBVAren %4,5 artean daude. Horien artean, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak espero duen %4,1 dago.